



ARGIA

Bake prozesua Ipar Euskal Herrian

SOSTENGUAREN GAKOAK

» **ÉRIC TOUSSAINT:** "GATAZKAN ETA DESOBEDIENTZIAN SARTU BEHAR DIRA ALDERDI ERALDATZAILEAK"

» **IRENE LARRAZA:** "PROFESIONALAK EZ DIREN SORTZAILEAK ERE LAGUNTZEA DUGU HELBURU ETXEPARE INSTITUTUAN"


» **JOXE LACALLE:** GERRAKO ARGAZKILARIA IRUÑEKO BARRIKADETAN



Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda




*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Eraso atomikoa iragarri dute Hawaiin... ez kasualitatez

IRITZIAK

- 17 Baleren Bakaikoa
- 18 Ainhoa Azurmendi
- 19 Eneko Olasagasti Miren Artetxe
- 20 Irati Elorrieta



"Estatuen zor publikoa, oro har, etengabe gora doa", ohartarazi du Zor Illegitimoa Ez Ordaintzeko Batzordearen bozemaile Éric Toussaintek.

- 31 ALZHEIMERRA
- 34 BIZI BAARATZEA
- 36 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKAK
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ÉRIC TOUSSAINT
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: BAKEAREN ARTISAUAK

SAKONEAN

- 12 | Joxe Lacalle: "Gaur balitz, orduko argazkiengatik kartzelan nengoke" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Bake prozesua Ipar Euskal Herrian: elkarlanaren gakoak / Jenofa Berhokoirigoin
- 28 | Gaizkiaren errepresentazio dotorea, irribarre unibertsalak borobildua / Jon Torner
- 32 | Menderatua da beti diskriminatzaile / Lander Arbelaitz
- 38 | Argia Sariak 2018: Balioetan oinarritutako sariak / Itsaso Zubiria
- 44 | Irene Larraza: "Etsepren munduko kultur institutu guztiekin parez parez aritu nahi dugu" / Lander Arretxea
- 47 | Arte iruzkina: June Crespo / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.

Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.

Lapurti, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



PANORAMA

Afganistan, Mendebaldeko demokraziaren beste lorpen bat

Larunbatean Kabulen talibanez anbulantzia batean jarritako bonbak 103 hildako eta 235 zauritu eragin zituen. Hirugarren sarraskia da 2018an. 16 urte pasa dira AEBek herrialdea militaroki okupatu, suntsitu eta beren interesen aldeko sasi-gobernua inposatu zutenetik. Egun, okupatzaileek eragindako anabasa afgandarrek "kudeatu" behar dute, dozenaka komunitate eta boteregunetan zatitutako herrialdean. Eraitza agerikoa da: krisi politiko, sozial, humanitario eta ekonomikoari aurre egiteko biderik ez da aukeren artean. Inoiz desagertu ez ziren talibanen eta okupatzaileen armez gain, DAESenak ere gehitu dira xake partidara. Munduan barrena demokrazia bonbaz bonba "irakasten" jarraitzen duten AEBen eta Europako mariatxien beste "garaipen" bat da Afganistan. Irudian: Kabuldik gertu dagoen "Maidan Wardak" eskualdeko "komunitateetako liderrak" segurtasun bilera batean.

Argazkia : UNAMA - Testua: Axier Lopez



Haserre eragin du interneten euskara sustatzeko diru-laguntzen banaketak (alboan albistea):

t “Lotsagarria Eusko Jaurlaritzak egin duen gure diruaren banaketa. Vocentoko adiskideekin eskuzabal oso. Gainontzekoekin ezin mizkinago”

@larrabaserria

t “Hau ez da kasualitatea, erabaki politiko bat baizik”

@itturri3

t “Diru-laguntzak eginkizun bat du. Kasu honetan erdal medioetan euskara gehiago agertzea bada, aurreko urtearekiko hobekuntza lagundu beharko zen, ez irudi estatikoa”

@ZEtxeburua

t “Oso kezkarria. Zupiriaren agerraldia eskatu dugu gaur Legebiltzarrean azalpenak emateko”

@andekalarrea

Diru gehien ‘El Diario Vasco’-ri, “interneten euskara sustatzeko”

Lander Arbelaitz Mitxelena

@larbelaitz

Aurten ere, gaztelania nagusi den hedabide batzuek euskara hutsez direnek baino diru gehiago jasoko dute Eusko Jaurlaritzarengandik, “interneten euskara sustatzeko”. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak banatu ditu “gaztelaniazko hedabideetan euskararen erabilera areagotzeko”


2017ko diru-laguntzak, Miren Dobaranen izenean. Diru gehien Vocento taldeko El Diario Vasco egunkariak jasoko du, 88.000 euro, bigarren Naiz-Garak 81.885 euro; eta Berriaren kopuru bertsua jasoko du El Correok: 73.000 euro. ARGIA. eus-ek aurten ere 17.444 jasoko ditu, iaz euskarazko hedabideen webguneen laguntzetan murrizketa jasan eta kopurua hiru urtetarako blokeatuta utzi ostean.

Sektorearekin adostu gabe aldatu zituen Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak emateko irizpideak eta horietan oinarritu zituen hedabide bakoitzari eman beharreko kopuruak.

Instituzioen eta hedabideen arteko harreman ekonomikoan kontuan

hartzeko beste datu bat da instituzioek zein hedabideetan zenbat publizitate jartzen duten. 2013. urtean, Iñigo Urkullu buru duen Gobernuak 5.649.112 euro gastatu zituen publizitatean eta diru horren %98 gaztelaniazko hedabideetan jarri zuen, %2 euskarazkoetan. Horri gehitu behar zaizkio udalek, baina batez ere Aldundiek hedabide jakin batzuei publizitate kontzeptuan ematen dizkieten ehunka milaka euro.

INTERNETEN EUSKARA SUSTATZEKO EUSKO JAURLARITZAK 2017AN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BATZUK



DATUAK:



“Hizkuntzaren esparruan ere PNVk euskalgintza kontrolatu nahi du”

JOSEBA ALVAREZ, SORTUKO KIDEA

“Euskaraldia, PNVk Topagunearekin izenpeturiko akordio estrategikoa da. Eta Euskaraldia da PNVk, bere bailitzan, Legebiltzarrean euskalgintzaren ordezkari gabe aurkeztu zuen egitasmoa (...) Hizkuntzaren esparruan ere PNVk euskalgintza eta euskalgintzako eragileak kontrolatu nahi ditu, orain arte lortu ez duena erdiesteko: euskalgintza domestikatua (...) Euskaraldia herri ekimenak sortua da, indarrez eta alaitasunez bultzatu beharrekoa, baina PNVri herri mugimenduarena dena patrimonializatzen utzi gabe”. 2018-01-24



FAUNA PUBLIKOA

**“Lid ergo intelektual eta morala
—horrela definitu zuen
hegemonia Gramscik— ez da zure
arerioaren ustezko estrategiak
agerraraziz irabazten”**

Pello Otxandiano,

Sortuko herrigintzako idazkaria (Gaur 8)

Abuztua ere hortxe dugu



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

“Antonio Gramscik erakutsi zigun hegemonia kontzeptua / sombrilla baten azpian puskaz hobe izango da ulertua”, kantatzen zuen Los Carradine taldeak *La clase obrera* kantatzen, zeinak deskribatzen duen, “alienazio” eta “gainegitura” artean, langile klasea nola doan paradisura... Marina d’Or-era. Kontua ez baita asturu txarreko belea izatea “winter is coming” esaka. Abuztua hortxe dugu, optimista izanez gero.

Uler bedi artikulua honen abiapuntua: ez naiz ezker abertzalekoa eta ez daukat ideiarik ere nondik jo beharko lukeen sektore politiko horrek. Eta ulertzen da Pello Otxandianok, hain zuzen, barne-klabearen egindako irakurketa dela *Gaur 8*-n argitaratu duena. Baina txorimaloaren falaziaren adibide perfektua ere bada: egilearekin bat egiten ez duten militantzia-kideen iritzia karikaturizatzen ditu, bere jarrera errazago defendatzeko.

Ez zait iruditzen erakunde politiko bateko oinarriak kontentatzeko modurik aproposena hori denik, batez ere inolako heldulekurik eskaini gabe egiten bada: edozein prozesu sozial garaian garaiko indar-harremanen ondorio dela dio —akaso korrelazio hori oso diferente ikusten du kaleko militante/sinpatizanteak eta beste maila bateko ardurak di-tuenak?—; eta errematatzen du esanez EAJrekin obsesionatu gabe, ezkerreko independentismoak argitu beharko lukeela bere proposamena —akaso zenbaitek, horren faltan, dauden arrisku potentzialez ohartarazi besterik ez du egin?—.

Beste bat ere izan daiteke problema: lehengo leninismoarekin edo oraingo joera gramsciarrarekin, lid ergo intelektual eta morala etxetik hasten dela eraikitzen. Bestela, arriskua dago berririk ez erakartzeko. Eta zaharrak Marina d’Or-era joateko. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**ZALANTZA
ESKUBIDEA!**



ADUR

ANALISIA



Maite zaitut, nik ere ez



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: ISABEL MIQUELESTORENA

Hegoaldean, euskara abagune bi hauen artean bizi da: Joxan Artzeren “euskara galduko da dakigunok ez dugulako egiten...” eta Bitoriano Gandiaren “euskaraz egiten ez duenak berak jakinen du zergatik ez duen egiten, baina egiten ez duenak ez dit euskaraz egiten uzten”.

Iparraldean, berriaz, euskara aztergai dugu azken bulta honetan, BAM barrutian, besteak beste. Bidasoaz goitiko euskararen egoera bestelakoa da, legez eta bestez. Egoera hau zailago zait deskribatzea.

Euskara kontu soziala izateaz gain, kontu psikologikoa iruditzen zait Iparraldean. Mendialdeko herrixka bateko irakasle batek honela erran dit berriki: “Aitatxi-amatxi euskaraz mintzo zaizkie bilobei, eta hauek frantsesaz erantzun. Gurasoak lorietan daude, beren haurrek euskaraz hitz egiten dutelakoan...”.

Aspaldi gabe, “euskal arazoa” hizpide, Ipar eta Hegoaren arteko aldeaz mintzatzearan “muga psikologikoa” adierazpidea erabili zen. Barregura ematen zidan, “arazoa” bi hitzetan ebazten baitzen. Orain, euskarari dagokionean pentsu dut “kontu psikologikoa” izatera iritsi ote den.

Euskara orain gutxira arte ez da eliteen hizkuntza izan, ez Hegoan, ez Iparraldean. Tira, Iparraldean lekutan dago horrela izatetik. Frantziak “inprimatutako” hezkuntzak euskararekiko *glotofobia* txertatu

du herritarrengan, bai euskararekikoan bai frantsesaz “dorpeki” egiten dutenekikoan.

Herri Elkargoa eratu zenetik urte bat joan da. Inork uste al du erakunde horren goi-karguek –gehienek– euskarak frantsesaren maila berekotasun –eskubide berekotasun– dutenik? Bada hala bada, bera ez da hemen bizi, edo ni “ez naiz hemengoa”.

“Horren frogarik?”, galdatu ahal dit norbaitek. Nire frogara ez da inkesta soziologiko baten parekoa, bistan da. Bizi naizenaz mintzo naiz. Eta ez naiz abertzalea ez denarekiko esperientziak ari, abertzaleez baizik. Ez nirekiko jardunean, prefoista, euskalduna –abertzale izan edo ez– nirekin euskaraz mintzo baita. “*Faltaria plus!*”.

Ez, ez... “Eliteko” euskaldunak “frantxi-ment”-arekiko egunero izaten duen jardueraz ari naiz. Menpekota erabat. Errepublikak (in)kontziente kolektiboan sarraraziko *glotofobiaren* adierazle.

Dena den, bidenabar, bejondeizuela euskararen alde adorez diharduzuen gutziei: ikastoletan, gau-eskoletan, irratiaren, bortuetan nola BAMen euskaraz ari zaretenei. Ene oniritzia duzue, ezbaierik gabe.

Nork bere afontua bizi du. Nik euskararen egoera Iparraldean eskizofrenia suertate baten gisara bizi dut. Serge Gainsbourg eta Jane Birkinen *Je t’aime... moi non plus* kantaren harian eta zurrumbiloan. Hots, “maite zaitut, nik ere ez”. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Davoseko emakume arriskutsu horiek



Juan Mari Arregi

Urtero, egun hauetan Davoseko Foro Ekonomikoa bildu ohi da Suitzako Alpeetako herrian. Zita dute kapitalismoaren munduko eliteek, izan enpresari nola agintari. 3.000 parte-hartzaile inguru dira, 119 ekonomiatako ordezkariak, eta tartean daude 340 lider politiko eta G-7ko sei presidente –denak, Japoniakoa izan ezik–, baita Donald Trump ere. Helburua, urtero lelo politez mozorrotua egonagatik, sistema kapitalista mantentzea da, aurpegiz aldatu behar bazaio ere: itxuraz “atsegina-goa” eta “humanoagoa” egin, munduko botereari eusteko.

Aurten “emakumearen momentua” izan omen da. Antolakuntzari kritikak egin izan zaizkio emakumeen kopurua eskasa delako, eta aurten baime-na eman dute klub hori eskusiboki emakumeek gidatzeko. Arrazoiak? Gai nagusietako bat dela emakume eta gizonen arteko langa sozioekonomikoa murriztea. Aukeratuak izan dira Erna Solberg Norvegiako lehen ministroa eta Cristine Lagarde Nazioarteko Diru Funtseko zuzendari kudeatzaileria. Lagardek duela gutxi adierazi du “zaharrak gehiegi bizi” direla eta hori “arisku bat” dela munduko ekonomia-erantzak.

Emakume aurpegia jarri bazaio ere, foro kapitalistak ez dio utziko kapitalista, klasista eta diskriminatzaile izateari, feminismoaren, politika sozialen eta herritarren kontrakoa. Nahiz eta zuriz pintatu, belea beti bele, eta kapitalismoa beti kapitalismo. Egiturazkoak baititu injustizia, iruzurra eta diruzalekeria. Eta adibide gisa hortxe dugu Lagarderen bidegabekeria, hirugarren adina likidatu dadila proposatuz, bera eta bere modukoak izan ezik, noski. Halakoxeak dira Davoseko emakume agintariak. Eskerrak beste pentsamolde bateko emakumeak nagusi diren munduan!



ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

Auzo segurua, bizitza duen auzoa

OTXARKOAGA. Bilboko Otxarkoaga auzoan izandako hilketek auzoaren segurtasunaren inguruko eztabaida piztu dute. Kritiko mintzatu da Karlos Renedo Otxarkoagako herri mugimenduko kidea: "Aburtok segurtasuna polizia eta kamarekin nahasten du. Auzo segurua, bizitza duen auzoa da. Urte luzez auzoan egin diren inbertsioak oso baxuak izan dira". Otxarkoagako arazoei "modu integralean" egin behar zaie aurre: "Aktibitate ekonomikoa, urbanismoa, hezkuntza, zerbitzu publikoak... Soluzio baten bidean ezinbesteko baldintzak dira".

201,9 kilometroko katea Donostiatik Legebiltzarrera

Andoni Mikelarena
@andonimik

Donostia, Bilbo eta Gasteiz elkartuko dituen giza-katea iragarri du Gure Esku Dagok ekainaren 10erako. Gutxienez 100.000 lagun behar direla adierazi dute.

Berezitasunak

"Euskal Herrian sekula egin den mobilizaziorik handiena" iragarri dute. 2014ko giza kateak baino 75 kilometro gehiago izango ditu eta hura nagusiki herri txikietatik igaro bazen, orain hirigune eta herri-gune handietatik pasako da: "Jende gehien bizi den eremuetatik".

Herritarron ituna

Eusko Legebiltzarraren ateetan amaituko da mobilizazioa, "herri-tarron ituna erakunde esku utziz, herri itunerako trantsizioa egin dezaten". Datozen aste eta hilabeteetan erabakitzeko arrazoiak bilduko dituzte. Arrazoi horiekin osatu nahi dute "herritarron ituna".

Zazpiak bat

Laster iragarriko dute Nafarroari dagokion plangintza eta Ipar Euskal Herriko eragileekin ere "harremanetan" daude. "Euskal Herri osoan erabakitzeko eskubidearen aldeko baldintzak sortzen" ari dira eta etorkizunean "zazpi hiriburuak" lotzea da helburua.

GESTIO PUBLIKOA

€
1,5

eta 3 milioi euro arteko kostua izango du Bizkaiko Foru Aldundiarentzat BECen antolatuko diren MTV sariak.

4

Azaroaren 4an da gala, eta eztabaida piztu du jada. Ongi dago espektakulu handiak erakartzeko diru publikoa erabiltzea? Berreskuratuko da dirua? Nolako kultura bultzatu nahi da?



CABACAS AUZIA

ARGIAko lantaldeak elkartasuna adierazi die Garako bi kazetariei, Jone Goirizelaia abokatuari eta Cabacas familiari. "Diru publikoarekin ordaindutako operazio polizial baten berri ematea ezin da inoiz delitu izan. Kazetarien jardun publikoa kriminalizatu eta baldintzatu nahi dute".



DISPERTSIOAREN LEHEN BIKTIMA

Xabier Ugarte Villar euskal presoaren emazte Susana Uribe txerriak izan du 2018ko dispertsioaren ondorioz gertatutako lehen istripua, bisitarekin osten. Ez du inongo zauririk izan.



LANGILE BORROKA

Guggenheim Bilbao Museorekin Fundazioa 6.251 euroko kalteordaina ordaintzera zigortu dute grebarako eskubidea urratzeagatik. Burutu zuen kaleratzea baliozgabea dela ebatzi du epaitegiak eta demandatea bere aurreko lanpostuan berronartzera behartu du Fundazioa.

Ikara Pazifikoan: eraso atomikoa iragarri dute Hawaiin... ez kasualitatez



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Urtarrilaren 13an, larunbata, beren bizitzako estatusunik larriena jasan zuten Hawaii uharteetako herritar askok, Ozeano Barean. Ipar Koreak bere mehatxua gauzaturik misil atomikoa bidalita, Hawaiira bidean zela abisatu zieten agintariek. 30 minutuz iraun zuen alarmak, harik eta agintariek argitu zuten arte simulazio batean gertatutako hutsegitea izan zela. Litekeena da, hala ere, hutsegitea baino zerbait gehiago izatea, munduak bizi duen arma atomikoen norgehiagokaren erdian.

Hawaiiko herritarrek larunbat eder hartako goizeko 08:07etan jaso zuten mezua telefonoetan: “*Emergency Alert BALLISTIC MISSILE THREAT INBOUND TO HAWAII. SEEK IMMEDIATE SHELTER. THIS IS NOT A DRILL*”. Euskaraz: Larrial-di alerta, misil balistiko bat Hawaiira bidean, ez da simulakro bat. 38 minutu luze pasa ziren agintariek bigarren mezua, oraingoan lasaigarria, zabaldu zuten arte: “Hawaii estatuarentzako inolako mehatxu edo arriskurik ez dago. Berririo diogu. Alarma faltsua”.

AEBetako armadaren baseetako militarrek azkar jabetu ziren arren erasorik ez zela, herritarrei luze jo zieten 38 minutu horiek. Batzuek lasaia hartu zuten arren alarma sirenak piztu ez zirela jabetuta, beste asko saiatu ziren beren buruak babesten ahal bezala, autoetan zihoazenean tuneletan edo lurpeko parkingetan babestuz, aterpe nuklearren bat zutenek hartan sartuz... Hawaiiko unibertsitatearen Manoako fakultatean ikasleak ahalegindu ziren aterpe nuklearretan sartzen, baina itxita aurkitu zituzten, funtzionarioek giltzarik aurkitu ezinda.

Boston Globe egunkarian Allison Wallisek kontatu du Hawaiiko Ohau uhar-tean berak bizi izan zuena: “Hawaiin ama izatea 38 minutuko beldur nuklearraren erdian”. Hondamendiak ez zaizkie arrotz hawaiiarrei, urakanak ez badira uholdeak, eta askok dauzkate etxeetan larrialdietarako kitak, “baina 36 urte dauzkat eta gerra nuklearren

mehatxurik gabeko mundu batean hazi nintzen”, dio Wallisek.

Senarra lanean zuen. Alaba txikiaren bila joan zen lorategira: “Zoaz gora, maitea, azkar, oraintxe. Hartu zure burkoa, sartu bainugelan, ireki iturria eta bainu ontzia betetakoan itxi berririo. Eseri bazter batean eta niri itxaron. Adoretua izan behar duzu. Berehala noa”.

Haurrak ez zuen negarrik egin, baina zuri-zuri zegoen, ikaratuta bere pijama barruan. “Ama, baina zer gertatzen da?”. Amak zakurra lotu zuen bainugelara eramateko, alabaren txintxilla maskota bere gordelekuan sartu, eta bidean txokolata barra batzuk batu zituen, etxean inprobisatutako babes lekuan kaleria azkarren beharra izango zutelakoan.

Bainugelan amak alabari, lasaitu nahian, galdetu zion ea eskolan aipatu zieten *Dug and Cover* (makurtu eta babestu) ipuina: Gerra Hotzaren urteetan eskoletan eraso nuklearren aurrean nola jokatu irakasteko marrazki bizi-dunez gobernuak hornitutako *Dug and Cover* azaltzen zitzaizkien umei. Betiko galdutako kontuak ziruditen.

“Baina ama, zertan ari gara? Mesedez, zer ari da gertatzen?”, galdetzen zuen neskatoak. Gurasoek ez zioten politikaz hitz egiten, lehendakariak ere ez, hartaz gauza on gutxi daukate kontatzeko eta ez dizkiote beren beldurrak pasatu nahi.

“Maitea, badakizu batzuetan herrialde batzuk borrokan hasten direla beste batzuen kontra, horixe da gerra. Gure lehendakaria liskarretan aritu da beste



batekin eta honek misilak dauzka. Badakizu zer den misil bat? Orain esan digute beste herrialde horrek misil bat bidali duela Hawaiira. Gure militarrek hura lehertu artean nonbait babestu beharra daukagu, badaezpada”. Haurrak baietz eta ea aita non den. Etxera bidean dela.

Halako batean iritsi da senarra etxera, uhartearen beste muturretik autoa ero moduan gidatuta. Tragoa galanta, eta beldurra. Eta telefonora heldu zaie mezu berria, alarma faltsua izan dela. 38 minutu luze ziren pasatuak. Ordu batzuk geroago idatzi zuen Allisonek *Boston Globe*ko artikulua: “Senarrak eta biok erabaki dugu larrialdiko kita prestatzea. Iodoa nola erosi ere enteratu behar dut. Alabarekin hitz egingo dugu eta familia osoa simulakroak egiten hasi”.

Nor da gaur gerra atomikoaren beldur?

Ipar Korearen eta AEBen arteko tentsioa Donald Trump lehendakari denez geroztik berotu ahala, eraso atomiko baten beldurra ere areagotu da AEBen 50. estatua den eta base militar oso indartsuak dauzkan Hawaii artxipelagoan. Hainbat misil jaurti ditu azken aldiari Ipar Koreak, azkena joan den azaroan, eta adituek uste dute Piongiangetik 7.400 kilometrotara dagoen Hawaii kolpatzeko gai dela. Ipar Koreak misil atomiko bat jaurtitzekotan, hawaiiarrek 12-15 minutu edukiko lituzkete beren buruak babesteko eztanda baino lehen.

Zer gertatu zen benetan urtarrilaren 13an, hawaiiarrek alarma faltsuz ikara-



CNN katearen argazkian, Hawaiiko herritarrek telefono mugikorretan urtarilaren 13an goizeko 08:07an jaso zuten mezua: "Larrialdi alerta, misil balistiko bat Hawaiira bidean, ez da simulakroa". Benetan Ipar Koreak bonba atomikoa daraman misil bat bidaltzen badu uharteotara, jendeak 12-15 minutu leuzkake eztanda baino lehen non edo han aterpetzeko. Aterpetuta ere zer lortuko luketen jakitea ez da oso atsegina.

tzeko? Agintariek azaldu dutenez, militarrek simulakro batean ari ziren eta ofizial batek hanka-sartze batean bere hatzaz okerreko botoiari sakatu zion. Zenbait adituk ez du erabat sinesten bertsio hori: batetik Trumpen gobernu nazioartean gerra giroa berotzen eta bestetik ipar korearren misil jaurtiketen aurrean Hawaiin behin eta berriro simulakroak egiten; urtarilaren 13koa sasi-simulakro sofistikatuxeezkoa izatea ere ez da pentsa ezinezkoa, alegia, populazioa garai berrietara egokitzeko operazio bat gehiago.

Bitxia da hedabide nagusiek zein oihartzun txikia egin dioten gertakizunari. "Kazetariak eta era zabalagoan hedabideak arma nuklearren gaiak lantzeari dagokionez huts egiten ari zaizkio jendearen interesari", idatzi du Marie McNerney australiarrek *Croakey* he-

dabidean. McNerney ICAN Arma Atomikoak Debekatzeko Nazioarteko Kanpainako kidea da eta nabarmendu du erakunde horrek, Nobel saria irabazi berria duen arren, salatzen duen arriskua herritarrei iristeko hesi gogorra aurkitzen duela aurrean.

"Zera egon liteke -dio McNerneyk- hedabideek gaiok baztertzeak daukaten joeraren oinarrian: disuasio nuklearraren teoria onartzen eta are sustatzen ere dutela. Teoria hori [*nuclear deterrence* ingelesez] funtsean demostratu gabeko sineste bat da, alegia, arma nuklearrak hain ikaragarriak direnez, horrek berak behartzen dituela armok dauzkaten potentziak elkarri ez erasotzera, biak suntsituta geratuko liratekeen beldurrez".

Badirudi iritzi publikoaren baitan lasaigarri suertatu dela disuasio nuklea-

rraren ideia. ICAN Nobel sari eta guzti arma nuklearrak debekatzeko egiten ari den kanpainak ez du beste munduko zalapartarik pizten eta potentzia nuklearrerako herritarrek -Bidasoaz bi aldeetako euskaldunok barne- ez dira kalera atera beren estatuek uko egin diotenean debekuari. "Ba al dago, ordea, gerra atomiko baten arriskurik?" harrituko zaizu herritarrik informatuena ere.

Frantzisko Aita Santua da alarma deia zabaltzen duen salbuespenetakoa. Hego Amerikara egin duen bidaiari azaldu die bere kezka kazetariei: "Benetan beldurrez nago. Muga-mugan gaude. Aski da gorabehera bat gertatzea gerra lehertzeko. Ezin dugu jokatu egoera larriagotzeko arriskuarekin. Horregatik, arma atomikoak suntsitzea derrigorrezkoa da". Kristauek ere entzun ote diote? ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Joxe Lacalle, argazkilaria

«Gaur balitz, orduko argazkiengatik kartzelan nengoke»

Mototsa, txalekoa eta zigarroa ezpainetan. Beti umoretsu eta irribarretsu. Beti barrikadako jendearengandik gertu. Gerrako argazkilaria etxean bertan, gatazka gogorrenen garaian.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Aspalditik Jarauta kaleari lotuta, baina Etxaurikoa zara?

Bai eta Etxaurin bizi izan nintzen 12 urte bete arte. Orduan Iruñera etorri eta gurasoek Jarautako Lacalle taberna zabaldu zuten. 14 urterekin hasi nintzen lanean guraso eta anai-arrebekin tabernan. Goizean lan eta arratsaldean ikasi.

Eta argazkilaritzarekin nola zaletu zinen?

Kale Nagusian drogeria bateko nagusia zen Nicolas Ardanazekin hasi nintzen. Berarekin ikasi nuen zertan datzan arte hori, argazkiak errebelatzen, positibatzen eta nolakoa den prozesu osoa. Posta bidezko ikastaroak ere egin nituen eta nire lehen kamerarekin, *Zenit* astun horietako batekin, poliki-poliki trebatzen hasi nintzen. Nire lehen lan profesionala 1976an izan zen Herce argazkilariekin. Herrietako jaietara joaten ginen kartoizko zezen eta zaldi batekin jendeak erretratua egin zezan. Imajina ezazu ni bezalako gaztetxo mengel batentzat zer zen hura! Mendialdeko herrietan nahiko ongi, baina Erriberan zezena eta zaldia apain-orrazi gisa jarritzen zituzten. Argazkiak egin, Iruñean

errebelatu eta berriro herrietara joaten ginen banatzera. Ezkontzak, bataioak eta jaunartzeak egiten ere hasi nintzen.

Prentsara, Egin-era, nola iritsi zinen?

Egin zabaldu baino lehen sostengu kanpaina handi bat egin zen eta guk tabernan parte hartu genuen dirua biltzen. 80ko hamarkadaren hasieran hasi nintzen kolaborazio puntualak egiten eta gero lan taldean sartu nintzen 1988an, 1998an itxi zuten arte. *Euskaldunon Egunkaria*-rako eta ARGIA-rako ere lan askotxo egin izan ditut urtetan.

Bai tabernan bai argazkilari lanetan jazarpena pairatu behar izan duzu eten-gabe.

Bai, hala da. 74an emaztea eta biok hartu genuen tabernaren ardura eta han ginela jaio ziren gure lau seme-alabak. Oso taberna bizia zen. Francoren garaian bukaeran giroa bor-bor zegoen eta han abertzale asko biltzen zen. 1976an hiru metroko ikurrina handi bat jarri nuen, Ceferina Fontellas, Abarzuza liburu-dendako nagusiak, bi egunetan josi zuena. Ederki ordainarazi zidaten gero.


Berehala hasi ziren mehatxuak, erasoak, jipoiak... batzuetan uniformedunak ziren eta besteetan Kristo Erregearen gerrillariak eta enparauak, baina, zalan-tzarik gabe, gogorrera izan zen 1979ko martxoaren 27an tabernako komunean

Joxe Lacalle Huarte

Etxauri, 1951

Prentsa argazkilaria. Hamabost urtez aritu zen *Egin* egunkarian, itxi zuten arte, eta batzuk gehiago *Euskaldunon Egunkaria*-n eta ARGIA-n. Berak hartutako argazkiak 80 eta 90eko hamarkadetakoa Nafarroako gatazka garrantzitsuenen adierazgarriak dira. Poliziaren eta eskuin muturreko taldeen erasoak izan ditu maiz eta urte bat eman zuen Carabanchelgo kartzelan. *Memorias de Lacalle* liburuak plazaratu berri du Txalaparta argitaletxearekin, bere 400 bat argazkirekin. Liburu salduenetako bat izan da azken hilabeteotan Euskal Herrian.





jarri ziguten lehergailua. Gutxigatik ez ginen hil emaztea, gure bi seme-alaba zaharrenak eta laurok. Gizon arraro samar bat sartu zen tabernan, bi gorri ga-seosarekin hartu eta komunera joan zen poltsa batekin. Handik aterata korrika joan zen bederatzi pezetako buelta jaso gabe. Dena oso arraroa. Zisterna tanta-ka sumatu nuenez joan nitzen ikustera zer gertatzen zen eta han aurkitu nuen bonba lehertzeko prest. Eskerrak kable batzuk bistan zeuden eta horregatik ez nuen ukitu, bestela... Handik aterarazi nuen jende guztia. Lehergailu-teknika-riak deitu eta bi ordu kostatu zitzairen etortzea. Bonba indargabetzerakoan kristoren danbatekoa jo zuen eta polizia bat kaleko aurreko hormaren kontra bidali zuen. Ikaragarria izan zen. Oso gaizki pasa genuen, baina horren ondoren etorri ziren jendearen elkartasuna eta laguntza ez ditut inoiz ahaztuko. Auzo lagunak, bezeroak, jende pila... aritu ziren auzolanean taberna konpontzen eta dirua biltzen berriz irekitzeko. Bi hilabete eman zuten lanean gelditu gabe. Zabaldu genuen egunean izugarritzko festa egin genuen. Jarauta kalean ehunka eta ehunka pertsona elkartu zen, txaranga eta musikari pila eta beste tabernetako zerbitzari asko etorri ziren, haien jantzi dotoreenekin laguntzera. Oso hunkigarria benetan. Kasua, noski, ez zuten batere ikertu eta hor gelditu zen eta gainera Guardia Zibilek irri egiten zidaten. Esaten zidaten, “zure tabernan nola ez dituzte bada lehergailuak jarriko hor dabilen jendea kontuan hartuta”.

Ezkerretik eskuinera Joxe Lacallek ateratako argazkien erakusgarria: Antsoaingo koartel ondoan antimilitarista (1988), intsumisoen protesta batean kaleko jantzitako polizia pistola aterata (1993), Iruñeko San Lorenzo kalean istiluak (1996), eta Gazteluko plaza jendez beteta sexu erasoen aurkako elkarretaratzean (2016).

Lehen lerroan beti

“Robert Capparen jarraitzaile sutsua naiz. Berak esan ohi zuen: ‘Argazkia ez bada ona, behar zenuen bezain gertu ez zeundelako da’. Orduan ez zuten teleobjektiboek eta halakoek balio, lehen lerroan egon behar zenuen eta kito. Gertu ez bazeuden ez zenuen ezer jaten. Hori bai, ostiak, pilotakadak eta harrikadak jasotzen zenituen”.

Barrikadetan

“Oso gustura lan egin izan dut, oso identifikatuta sentitu naizelako barrikadako jendearekin. Jendeak harrera ona egiten zidan beti eta askotan lagundu ere bai”.

Eta handik gutxira Carabanchelera?

Bai. Erasoez eta mehatxuek jarraitu, eta bakerik ez. Handik bi urtera, 1981ean, atxilotu ninduten banda armatuaren laguntzaile izatea leporatuta. Oso gaizki pasa nuen. Guardia Zibilaren kuartelean eduki ninduten bederatzi egunez eta denetik egin zidaten: jipoiak bata bestearen ondoren, gauean kanpora atera burua estalita eta pistola bat buruan jartzen zidaten mota guztietako mehatxuak eginez... Niri eta nire familiari egin behar zigutena mila bider errepikatzen zidaten. Oso gaizki pasatzen da. Tortura psikikoa fisikoa baino gogorragoa zen. Lehenbiziko bi ostiak hartu ondoren akaso hurrengoak gutxiago nabaritzen dituzu, baina psikikoa etsigarria da oso. Handik Carabanchelera eraman ninduten. Saiatu nintzen salaketa jartzen eta epaileari erakutsi nion nola nituen hankak eta barrabilak ubelduz beteak, baina esan zidan auto istripu baten ondorioa izan zitekeela, eta ez zidan salaketa onartu. Kartzelara bidali nindutenean pentsatu nuen horrela behintzat atsedena hartuko nuela behingoz. Urtebete eman nuen han eta kasik bazeuden nire eza-gun gehiago barruan hemen kanpoan baino. Tabernatik pasatzen zen jende asko zegoen.

Zer leporatzen zizuten, zehazki?

Beste taberna batera bazkaltzera joaten ziren poliziak nire tabernatik kontrolatzen nituela zioten, baina hori ezinezkoa da ez delako ikusten, izkina hartu eta



harago gelditzen delako. Hori frogatu zuen abokatuak eta azkenean urtebete kartzelan eginda atera nintzen.

Tabernara itzuli nintzen, baina argi ikusi genuen han eta horrela ezin genuela bizi. Asteburu oro sartzen zen polizia taberna huster. Guzti-guztietan. Erasoak eta jazarpena etengabeak ziren, eta horretaz guztiaz gain, Alde Zaharrean heroina pila zegoen eta ez zegoen modurik han lau haur txikirekin bizitzeko. 80ko hamarkadan oso zaila zen Alde Zaharrean bizitzea. Beraz, *Egin*-en hasi nintzen lanean, taberna itxi eta Zizurre-ra joan ginen bizitzera.

Eta argazkilaria beti gatazken lehen le- rroan?

Bai, hala da. Aranguren ibarrean egin nahi zuten zaborteziaren aurkako mobilizazioetan egon nintzen, Leitzarango autobidearen aurkakoetan, Itoitzen, Euskal Jai gaztetxean, intsumiso eta emakumeen aldarrikapenetan, euskararen aldekoetan... Eta beti arazoak poliziekin. Askotan jo naute eta gero argazki karreteak kendu eta belatu egin dizkidade. Beste batzuetan, aldiz, ni azkarrago ibili naiz eta lortu dut karreteak salbatzea ezkutuan atereaz edo beste pertsona batzuen laguntzaz. Behin, adibidez, Irurtzun-Andoingo autobidearen kontrako protesta batean tiroka hasi zen Guardia Zibila eta nik argazki pila egin nuen. Ikusi nuenean *patrol* bat nigana zetorrela, lortu nuen karreteak ateratzea eta bere ordeaz beste berri bat jarri nuen kameran. Betea zegoena galtzontzilloe-

tan ezkutatu nuen eta guardiak iritsi zirenean, batere identifikaziorik eskatu gabe, kamerako karreteak kendu eta belatu egin zuten esanez: “Tori, bihar *Egin*-en argitaratu dezazun”. Hala egin nuen bai, hurrengo egunean argazki guztiak atera ziren. Salaketa jarri nuen Argazkilarien Elkartearen bitartez eta harrez geroztik autobidearen mobilizazioetan ez zidaten pasatzen uzten lehen lerrora argazkiak egitera. Beti guardia batzuk nituen aldamenen.

Baina beti ez dut hainbesteko zortetik izan. Behin baziren polizia batzuk hiru gazteri kristoren jipioa ematen Karmen kalean, poliziak tiro batez akabatu zuen Mikel Castilloren monolitoaren aldamenen. Argazkiak egiten ari nintzen eta konturatu gabe hiru polizia etorri zitzaizkidan, kamera kendu, karreteak belatu, eta izugarritzko kolpe mordoa eman zidaten. Ia konorterik gabe gelditu nintzen lurrean botata eta eskerrak auzo lagun bat etorri eta bere etxera eramanez.

Zein izan da ikusi duzun kargarik basatiena?

Arangurenen. Adineko jende asko zegoen eserita, errepidea ixten, eta polizia bi metrotara hasi zen pilotak botatzen. Bi metro baizik ez! Jendea odoletan, lurrean...

Beste egun batean intsumisioaren protesta batean Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean karga gogor bat egin zuten eta argazkilariorik ere jaso genuen kolpe pila. EFEko argazkilaria besoa

apurtu zioten eta ez zegoen modurik ospitalera eramateko. Oso gaizki pasa dugu askotan.

Pasadizo pila izanen duzu...

Askotan esaten zidaten ni hor egotea zerbait gertatuko zenaren seinale zela. Eta batzuetan nazkatu egin ninduen kontu horrek. Behin Diputazio pareira iritsi nintzen prentsaurreko arrunt batera joateko eta foruzain bat hasi zitzaidan potroak ukitzen betiko lelo horrekin. Orduan erantzun nion: “A, ez dakizu? Hemendik hogeit bat minutura agertuko dira Itoizko solidario guztiak kateatzera”, eta prentsaurrekoa egitera igo nintzen. Handik jaitsi eta aurkitu nuen espalo osoa foruzain “beltzez”, berezi horietakoez, beteta. Alde egin nuen. Handik aurrera jada foruzain horrek ez zidan gehiago galdetu.

Intsumisioek, aldiz, beti esaten zuten “Joxe hemen egonda, lasaiago gaude” eta Itoizko solidarioek “*jodido paparazzi*” esaten zidaten txantxetan. Poliziek, aldiz, “mototsdun putakumea” deitzen zidaten. “Kontuz, hemen dago mototsdun putakumea argazkiak egiten. Kontuz egiten duzuenarekin”, hori esaten zuten hasieran, baina gero tentsioak gainezka egiten zuenean, ostia zaparrada hasten zen eta akabo dena.

Batzuetan poliziek aurpegia ez ateratzeko eskatzen ziguten argazkilariorik eta nik esaten nien agertu nahi ez bazuten hobe zutela aurpegia estaltzea. Ni ez nator zure aurpegia ateratzera, baina ez naiz ibiliko aurpegiak banan-banan es-

taltzen, esaten nien. Arangurenen, adibidez, hori gertatu zitzaidan eta hurrengo egunean guardia zibilak aurpegia estali eta etorri ziren.

Zergatik utzi zenuen lanbidea?

Egin ixtea makilada handia izan zen. Beste komunikabide batzuetan kolaborazioak egin nituen, oso gustura, baina ondoren eratu zen Argazki Press agentzia eta ni ez nintzen sartu gero eta lan gutxiago neukan. Gainera berehala zintzilikatzen dizkizute etiketak. Horrela ezin jarraitu eta ostalaritzara itzuli nintzen. Orain nahi ditudan argazkiak egiten ditut.

Mozal Legeaz zein iritzi duzu?

Lanbide honetan, eta gizartean oro har, teknikoki aurrera egin dugu, baina askatasunean atzera. Izugarri gainera. Alde batetik, orain askoz mugimendu gutxiago dago kalean, eta ez beharrik ez dagoelako, baizik eta jendea etxean gelditzen delako lana galtzearen beldurrez, imajinatzen dut. Beste aldetik, askoz zailagoa da gaur egun lan egitea Mozal Legearekin. Nik egin ditudan argazkietako asko gaur egun pentsaezinak lirateke. Gaur balitz, argazki horiengatik kartzelan nengoke. Seguru, isuna ez nukeelako inola ere ordainduko.

Gaur egungo prentsako argazkilaritza nolakoa da, zure ustez?

Oso monotonoa. Prentsaurrekoak as-



pergarri samarrak izaten dira beti. Bestalde, gaur egun intrusismo izugarria dagoela salatu behar da, nire iritziz. Jende asko ari da denbora guztian argazkiak eta bideoak toki guztietara bidaltzen, bere izena komunikabideetan ikusteko baino ez, eta egunkari eta aldizkariak dena hartzen dute. Sartzen dira baita sartu behar ez dutenean ere, muturreko irudien bila. Horren ondorioz gaur egun komunikabide askok jada ez dute langilerik kontratatu nahi, soilik *freelancer*-en lan zehatzekin eta doan iristen zaienarekin betetzen dituzte orrialdeak.

Zenbat eta morbo handiagoa izan, orduan eta hobeki.

Horren aurkakoa naiz. Behin lan istripuz hil zen langile baten argazkia egin nuen. Izugarria. Ez nuen publikatu nahi izan. Orain, urte mordoa pasata, liburuan jarri dut. Biescaseko kanpineko ezbeharrean edo Uharteko tren istripu izugarri hartan ere izan nintzen, baina ez nuen pertsonen argazkirik atera

nahi izan. Beste batzuk eskrupulu gutxiago dute. Ezagutu nuen hemengo egunkari batean ari zen argazkilari bat DYAKOA zena. Istripuen berri izaten zuen inork baino lehena, motorrean joaten zen eta anbulantzia baino lehenago iritsi. Kontatzen zuen behin baino gehiagotan hara heldu eta gorpuak eta zaurituak mugitzen zitue-

la berak nahi zituen argazkiak egiteko. Nik esan nion ez zela argazkilaria, putakume nazkagarria baizik! Orain morbo hori guztia normalizat hartzen da.

Nola sortu zen liburua egitearen ideia?

Jendeak askotan esaten zidan ea noiz egin behar nuen erakusketa edo horrelako zerbait gordeta neuzkan argazki berezi horiekin guztiekin, baina nik nahiago nuen erretiroa hartu ondoren liburu bat egin. Nire azken lana ostalaritzan egin nuen eta erretiratu nintzen eskaner on bat oparitu zidaten. Negatiboak eskaneatzen hasi nintzen. Txalaparta argitaletxearekin jo nuen nire proiektuarekin eta berehala hasi ginen lanean. Eskerrak eman behar dizkiot bereziki Mikel Sotori bera izan delako hori dena ordenean jarri duena.

Zer argazki egingen zenuke gustura?

Ai ama! Bada, Nafarroako alderdi politiko guztiak bat eginda aldarrikatzen hau ere Euskal Herria dela, beste euskal probintziekin batera. ■

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

Euskal eliteen menpe

Berriki jakin ditugu euskal hezkuntzaren emaitza kezkarriak. Duela luze ez dela, PISA txostenak (Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programak) eman zigun lehen zaplaztekoa, emaitza oso kaskarrak lortu zituztelako gure ikasleek. Izan ere, sinetsarazi ziguten Eusko Jaurlaritzatik hemengo irakaskuntza oso maila gorenekoa zela, Espainiako Estatuan “oasi” bat, baina emaitza txar horiek dagokigun lekuan jarri gaituzte.

Ez da harritzekoa emaitza horien zergatia. Ez dugu ahaztu behar 2009tik hona izugarritzko murrizketak pairatzen ari direla gure hezkuntzako aurrekontuak. Diru publiko gutxi dago hezkuntzarentzat, are gutxiago hezkuntza publikoarentzat, nahiz Jaurlaritza babesten duten propagandistek alderantzizkoa sinetsarazi nahi diguten. Alferrik orde, datuak hor baitaude.

Duela zenbait hamarkadatik hona, sinetsita geunden hezkuntzak etorkizunerako aukeretan berdintasuna eskainiko zigula eta langile xume baten seme-alabek aukerak izango zituztela edozein lanpostu eskuratu ahal izateko. Berdin zela txiro edo aberats jaio, hezkuntzak norbanako bakoitza maila berean ipiniko zuelako. Politika horren ondorioz estatua edo gizarte kapitalista legitimatu zen, baina gezur handi hori azalduz joan zaigu etengabe gure gizartean eta dirudunen ondorengoak eliteko ikastetxe, institutu, lizeo eta unibertsitateetara joaten diren bitartean, langileen seme-alabei zentro masifikatu eta arruntetara joatea besterik ez zaie geratzen. Eliteko ikastetxe hauetan familia aberatsen arteko harremanak sendotzen dira eta biharko egunerako erraztasunak landuko dituzte, lanpostu egokiak erdiesteko bideak zabalduz.

Bidenabar Finlandiako hezkuntza sistema aipatzen zaigu etengabe. Alta, Finlandiako hezkuntzarako aurrekon-



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Gure ikasleak iristen dira unibertsitateetara eta tamalez, irakurpen maila ezin baxuagoa dute, ulermen maila arras apala eta mintzatzeko eskumen urria. Ez da harritzekoa, beraz, ez jakitea nor zen Gero idatzi zuen euskal klasikoa, edo Einsteinek zer landu zuen edo euskara batuaren sustatzaile nagusia Txillardegia izan zela

tua imitatu ordez, hemengoa murriztu egiten dute; irakasle hobereenak hautatzeko frogak bideratu ordez, edonor bilakatu daiteke maisu-maistra; ikasgelako ikasle kopurua murriztu ordez, handitu egiten da 35-40era heldu arte;

gizartean maisu-maistrak indartu eta adoretu ordez, jasotzen dituzten tratatu txarren aurrean, hezkuntzako erantzuleek beste aldera begiratzen dute; gaixotutako irakaslea bat-batean ordezkatu ordez, bi-hiru egun gainontzeko irakasleen esku uzten da ardura hori; laguntza berezia behar duten ikasleen ardura, batik bat, gurasoen esku uzten da.

Eta diru publikoa egon badago zenbait jarduerarako: Espainiako Defentsa, Seguritatea, Erret Etxea, Kanpo Aferetako gastuak edo zor publiko estatala ordaintzeko; gainera, San Mames Barria, Anoeta, arrazionaltasun gabeko AHT, Donostiako metroa eta abar ordaintzeko dirutzak hor daude. Bien bitartean, 2009ko hezkuntzako gastu orokorrak, orain arteko garaienak, 2.832 milioi euro izan ziren eta 2018koetan ez da maila horretara iritsiko, 2.665 milioi euro izango baitira.

Egoera horretan, gure ikasleak iristen dira unibertsitateetara eta tamalez, irakurpen maila ezin baxuagoa dute, ulermen maila arras apala eta mintzatzeko eskumen urria. Ez da harritzekoa, beraz, ez jakitea nor zen Gero idatzi zuen euskal klasikoa, Einsteinek zer landu zuen edo euskara batuaren sustatzaile nagusia Txillardegia izan zela.

Azken bolada honetan, gardenki azaltzen ari zaigu problematika hau guztia hezkuntzako sindikatuen bidez. Horregatik, gurasoek eta sindikatuek bat egitea derrigorrezkoa dakusat hezkuntza sistema hobetze aldera. Bestela, euskaldunon etorkizuna iluna izango da.

Finan, gure agintarien seme-alabek prestigioetako zentroetan ikasten duten bitartean, matrikula garestiak ordainduta, bost axola bazaie herriar xumeen ondorengo hezkuntza maila, morrontzarako seme-alabak prestatzen ariko gara. Haatik, badugu zertaz arduratu. ■

Sagardo denboraldiaren irekiera

Hernaniarra naiz. Sagardozailea. Eskubaloira jokatu dudana hogei urtetan ezagutu ditudan emakume gehienek, nazioarte mailan jokatutako kirolari handiak barne, nik bezain beste gozatzen zuten sagardotegian garaipenak ospatzen genituenean, edo talde sentimendua kupel artean sustatzen genuenean. Eta oraindik ere elkarrekin sagardotegira joateko usadioa mantentzen dugu. Halaber, ezagutzen ditut sagardoa eta sagardotegia oso gustuko duten emakume arraunlariak, futbolariak, judokak, pilotariak, piraguiak, surflariak, eta abar luze bat.

Alabaina, deigarria iruditu zait aurtengo sagardo denboraldiaren irekiera ekitaldi ezberdinetan, eta bereziki hamaika kiroletako gizonen parte hartu dutenetan –nire errespetu eta miresmena luzatzen diet guztiei–, apenas emakumerik ikustea; ez kirolariak, ez gizarteko beste arloetan balentria handiak egin dituzten emakumeak. Zer dela eta? Ez al dago gure inguruan ohore hori merezi duen emakumerik? Nahita eginda ere, zaila egiten zait sinestea emakume kirolari bakar bat bera ere ez egotea, are eta zailago, azken hilabeteetan hainbatek lortu dituzten emaitzak gogora ekartzen baditut.

Begiak itxi eta kirolari hitza entzuten badugu zer irudi datorkigu buru-



Ainhoa Azurmendi

KIROL AHOLKULARIA ETA EHU-KO IRAKASLEA

Deigarria iruditu zait aurtengo sagardo denboraldiaren irekiera ekitaldi ezberdinetan, eta bereziki hamaika kiroletako gizonen parte hartu dutenetan, apenas emakumerik ikustea. Zer dela eta?

ra? Kirol arloan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko, komunikabideetan, kalean, ekitaldi berezietan, eskoletan, eta leku guztietan, emakume kirolariak ikustarazi behar direla esa-

ten dugunean, besteak beste, kirolaren tradiziozko kooptazioa eta irudi maskulinoa apurtzeko beharraz ari gara; adin guztietako emakumeek, eta bereziki, neskak gazteek, ereduak edukitzeko garrantziaz ari gara; emakume kirolarien egoera ekonomiko prekarioa leuntzen eta jardunaren kalitatea hobetzen lagundu dezakeen babesle potentzialen artean haiek ezagutzera emateaz ari gara; eta nola ez, emakumeok gizartean merezi dugun gizonen bezain besteko tartea eskaintzeaz ari gara.

Tamalez, aurtengo sagardo denboraldiko hasierak emakumeak esparru horretan ez-jakitunak, arrotzak, edo asko jota, bigarren mailako gonbidatuak garen irudia proiektatu du. Hala ere, kontuan hartu behar da gertakari hau behin eta berriz gizarteko eremu guztietan gertatzen denaren adibide bat besterik ez dela.

Gizartearen arlo publikoko protagonisten irudikapen mentala aldatzeko lehen pausoa ekintza praktikoa da, hain zuzen, emakumei beti ukatu izan zaigun espazio publikoan parte hartze-ko eskubidea bermatzea. Eta uste dut badela eskubide honen zaindaria lanetan emakumeok baino erantzukizun txit handiagoa duen pribilegiatu edo ohar-kaberik. ■

informazio osoa
www.bertsozale.eus



LEHENENGO FASEA
Otsailaren 2tik 18ra (16 saio)

BIGARREN FASEA
Martxoaren 2tik 11ra (6 saio)

FINALA
Martxoaren 24an, Lekunberriko
Toki Alai Sagardotegian



Artista langileak



Eneko Olasagasti
GIDOILARIA ETA
ZUZENDARIA
@EnekoOlasagasti

Madrilgo Aktoreen Batasuneko idazkari nagusi Iñaki Guevararen hitz dira honako hauek: “Aktoreak noizbehinkako langileak gara eta, horregatik, legeak egokitu beharrean gauden gainontzeko langileen eskubide berak lortzeko”.

Bere hitzek azken urteetan eman den ekimen baten mamia laburbiltzen dute. “Artistaren Estatutua” bezala ezagutzen da eta horixe du helburu: langileen eskubide berak izatea, artistak ere langileak garelako.

Hedabideek saltzen duten aktoreen irudia gehienetan alfonbra gorriarekin lotuta dago, edo antzeko ekintzek zabaltzen duten glamourarekin. Inportatutako irudia inondik inora. Eta gurean, *Handia* fenomenoak Goyatarako izendapenekin (Zorionak, duda gabe) areagotu egiten du irudi hori. Baina errealtateak ez du zerikusirik horrekin, ez eta Gizarte Segurantzarekin dugun harremanarekin ere. Guretzako propio sortu zuten Erregimen Orokorren barruan artisten erregimenaren berezitasuna aitortzen zaigu, baina horrek ez dizkigu eskubide berak bermatzen. Eta kontua, hain zuzen ere, hori da. Langile guztien eskubide berberetara hurbilduko gaituen lege al daketa bat bultzatzea. Hiru puntutan laburbiltzen da Artistaren Estatutuak eskatzen duena.

1. Gizarte Segurantzaren erreforma. Bermatu dezan lanik gabeko uneetan egon dadila langabezia prestazioa, behin-behinekotasun edo inter-

mitentzia errealtatera egokitua, artistek bere bizitza laborala osa ahal izan dezaten.

2. Erreforma fiskala. Urte batean irabazitakoa errenta aitorten diferentetan banatu ahal izatea, aintzat hartzeko artista baten soldatak, bere lana bezala, aldakorrek eta intermitenteak direla.

3. Eredu sindikalaren erreforma. Artistek, gainontzeko langileek bezala, hauteskunde sindikalak egin ahal izan ditzaten, eta sindikatuek arloko erakunde sindikal nagusiak bezala onartuak izateko aukera edukitzea.

Hau guztia aurrera ateratzeko joan den urteko udaberrian Madrilgo Diputatuen Kongresuan, eta Podemosek bultzatuta, azpibatzerde bat osatu zen. Sare sozialetan, batzerde horren bilera bateko bideo bat ikusi ahal izan da, non Espainiako lau alderdi nagusiak bat datozen ekimenarekin. Beste kontu bat da horrek zein ibilbide izango duen, nahiz eta denak bat etorri oinarrietan. Bideoan ez dira azaltzen ez EAJ, ezta EH Bildu ere. Kontuan izanik Gizarte Segurantzaren eskumena Madrilgo esku dagoela oraindik, ez legoke gaizki Euskal Herriko artistok bi alderdi horien bitartez ordezkatuak izatea batzerdean. Agian hala da, bideoan azaltzen ez badira ere.

Berez 2018ko udaberrian iritsiko da Kongresura eztabaidatua izateko. Sinplea beraz, artistak langileak gara eta eskubide berak nahi ditugu. Ea. ■

Beti bezperako koplak



Miren Artetxe Sarasola
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Klank. Klank. Klank...: “Edertasunez jaunak apaindu zuen Ageda gaztetan. Haren begiak izar bi ziran, aurpegi gozo haretan. Gizon gaiztoen grina zitalak esna zitzaken benetan. Lais-ter izutu zuen Kintziano Agedaren ederretan”.

Siziliako gobernadore saiatu omen zen Agedaren edertasuna bereganatzen –demagun, ezkontzeko eskatuz–. Neska gazteak, ordea, “Kintzianoren eske guztiak errez baztertu zituan” –demagun, bere birjintasuna Jesus Nazaretakoari eskaini nahi ziolako. Baina –kristau-ehiza garai bete-betean– “agintari gaizto harek kristautzat salatu zuan”.

Tradiziozko istoriotik ikasbide bat hautatze-kotan, nik hauxe. Kintziano Agedaren ezetzak

amorrarazi zuen, eta haren kristautasuna erabili zuen, herraren herraz, bere boterea ezezkoarekin desafiatu zuen hura makurrarazteko. (“Interpretazio partziala!”, entzun dezaket. “Anakronismoa!”). Eta Agedaren gogaitu aurpegia agertzen zait GIF erara, begiak zuri, hasperenka eta bularretik odol-zurrusta dariola.)

Alabaina, gauzak zer diren, zigor gisara putetxe batera eraman zuen Kintzianok Ageda, duintasuna gal zezan, birjintasunarekin batera. Izan zedila puta. Ezezkoaren aurretik ez bazen, ezezkoaren ondoren. Baina, puta. Eta mirariz, bertan ere ez zuenez birjintasunik galdu, Ageda giltzaperatu eta hil arte torturatzeko agindu zuen gizonak.

Klank. ■

Glifosatoa eta ni

Gure harremanaren kronologia laburra egingo dut soilik oroimena erabiliz, hau da, sarean gaiak ikertu gabe. Hitz berria 2017ko udaberrian agertu zen nire bizitzan, gure etxean: Glifosatoa. Erabateko intrusioaren bidetik, produktu ekologikoz osatutako erosketa baten gehigarri eskatu-gabea aurkeztu zen. Gainbegiratu baino ez nuen egin. Ez nintzen gaizki sentitu gaiak ezer ez jakiteagatik. Gai pila pasatzen dira ohartu gabe. Trenean eserita doan bidaiariari paisaiaren zati handiena leihotik kanpo geratzen den ingurutik pasatzen zaio. Akorduan dut inprimakiak nire arreta finkatzeko gakoa izan zela sinadura bilketa Europa mailakoa izatea. Pestizida toxiko bat European debekatzeko eskaera hartatik ulertu nuen: gizakientzat minbizi-sortzailea izan zitekeela eta, hau ziur, ondorio larriak zituela biodibertsitatean. Eta beti indargabe sentiarazten nauen zerbait gehiago: pestiziden gaineko ikerketak ez dituela pestizida industriak agindu eta finantzatu behar, baizik eta instantzia erregulatzailerak berak. “*Ejem, kontu ezaguna!*”. Lau sinadurarako lekua zegoen, eta herri-ekimen europarra zenez, bisitan etorriko ziren gurasoei ere sinadurak eskatzea otu zitzaidan. Inprimakia sukaldean zintzilik izan nuen haiek etorri ziren arte.

Sinatu zuten. Baina, dena esan behar badut, mesfidantzaz. Ea zer zen glifosato hori. Beraiek ez zekitela ezer horretaz, eta ea zer ote nekien nik. Ez baita nire arloa, benetan. Bidali genituen sinadurak, beste milioitik gora europarrarekin batera. Haurtzaindegiko ama bati entzun nion inprimakiaz, nirekin Yogara doan bati... Antza, zarata handirik egin gabe, baina ahoz-aho, bazebilen ibili, glifosatoa.

Urte erdira edo izan nituen haren hurrengo berriak. Noren eta Alemania-



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

ko nekazaritza ministro kontserbadorearen baieztakotoari esker (sorpresa!), glifosatoa erabiltzeko baimena hurrengo bost urtetarako luzatuko zela European. Nola eta sozialista deituriko alderdiak daraman ingurugiro ministerioaren betoaren kontra, artean bi alderdi handien koalizioa indarrean zegoela, eta alta, koalizio horren araudia urratuz. Noiz eta Merkelen alderdiak, Jamaikaren koloreak lituzkeen gobernu alemaniar batera heltzeko negoziatioek porrot egin zuten, sozialista traidionatu horiexekin zundaketetan hasi behar zuenean. “*Amatxo maitea, benetan?*”. Deskalabru hau guztia prentsan agertu zenean glifosatoaren kontrako jarreraren argumentu bat nagusitzen zen argi eta garbi: espezieen suntsipena. Adituak izan gabe ere, kontzeptu batzuk serio hartzen hasi behar dugu.

Gabonak tartean, aste batzuk pasa dira osteraren ere glifosatoaz entzun orduko. Koalizio berririk gabe jarraitzen du Alemaniak (agian ez du BEHAR) eta lagun batek esnatu nau goizean, telefonoz, 300 bat traktore pasa direla bere etxe aurretik. Bere umea entzuten dut atzetik, asaldatuta “*Traktor! Traktor!*” esaten. Dinosaurioak zer diren dakien ume batek leihotik dinosaurioak ikusi izan balitu bezain aztoraturik. Nire laguna ere, umearen ama, hunkituta dago, ez zuela gogoan manifestazioa zegoela, elkarrekin joango ahal ginen. Nik ez nekien ezer delako manifestazioaz, beste laborantza baten eta glifosatoaren debekua aldekoaz, baina ezin izan dut berarekin joan, umeen gripeak aginduta.

Lagunaren balantzea jaso dut mezu bidez: “*160 traktore! Bat Augsburgetik. Asko hegoaldeko etorriak. Erleen kontuarekin hasi behar dugu*”. Badaude bere bidea egiten duten aferak. Baietz erantzun diot, kontatzeko nirekin. ■

Euskal
Eskola
Publikoa

Handi-
tzen
handi-
tzen

Mundua
eskura
izateko

**AURRE-
MATRIKULA**

Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra

ONLINE
AURREMATRIKULA
www.hezkuntza.net

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Euskal presoek eskubideen alde Parisen deitutako manifestaziora 15.000 lagun inguru joan ziren, Frantziako telebistaren arabera. Pankarta nagusia familia politiko ugaritako ordezkariak eraman zuten.

BAKEAREN ARTISAUAK



Bake prozesua Ipar Euskal Herrian

Denborarekin sendotu eta zabaldu den elkarlanaren gakoak

Bake prozesuaren aldarriak Ipar Euskal Herrian daukan sostengu zabalari xeheki begiratzuz gero, ohartzen gara sustrai bat baino gehiago dagoela oinarrian eta guztiak direla kontutan hartzekoak. 90eko hamarkadan hasi eta 2000ko hamarkadan sendotu egin dira abertzale eta abertzale ez direnen arteko elkarlanak, lurralde antolaketatik hasirik, geroz eta politikoagoak diren esparruetara hedatuz. Hamaika aldaketak ahalbidetu du gaur egun begibistakoa den elkarlanerako gaitasuna.



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Kasik ohitzen hasiak gara gatazka politikoaren konponketaren aldarriak Ipar Euskal Herrian biltzen duen sostengu zabal eta anitzarekin. Euskal preso politikoen alde Parisen egindako manifestazioaren lehen lerroan plazaratu zen beste behin ere iazko abenduaren 9an: Frantziako Parlamentuan dauden Euskal Herriko diputatuak eta Lucien Bedbeder Ipar Euskal Herriko Auzapezen Biltzarreko presidentea hor ziren, besteak beste. Tendentzia politiko guztiak elkarren ondoan, abertzaleak eta ez-abertzaleak elkarren ondoan. Azken hamarkada honetan, horrela eramanak dira bake prozesuaren, ezagupen instituzionalaren edota hein txikiago batean euskararen ezagupenaren gaiak. Alta, batasun hau berria da eta berriki arte ezin irudikatua genuen. Batez ere gatazkaren konponketaren inguruan dagoen elkarlana. Aldaketa andana baten juntatzeak ekarri du begi bistan daukagun aldaketa potolo hau.

Bere burua frantziar errepublikanoztat daukan Max Brisson senatari eskuindarraren azalpenak interesgarriak dira egoera ulertzeko. 2001eko urriaren 17ko Aieteko Adierazpenak finkatu bide-orria gauzarazten dabilen gizonak, iraganean diskurtso jakobino baita anti-abertzalea ere zuelako. Hiru osagai identifikatzen ditu bilakaera azaltzerakoan: bat, norbera aldatzen da –“denborarekin ikasi dut, eztitu naiz”, “bilakaera pertsonal batek ekarri du oinarrian neukan jakobinismoa biziki ahuldu izana”–; bi, parekoa ere aldatzen da –“errespertuz diot, sentsazioa daukat beste batzuk ere bide egin dutela, demagun hautetsi edota militante abertzaleak Euskal Hiri-gune Elkargoan engaiatu izana, jakinda estatutu bereziko egitura bat dutela eskatzen”–; eta hiru, testuingurua aldatzen da –“Euskal Herrian giroa aldatu izanak ere dakar aldaketa”–. Hiru esparruak hein berean garrantzitsuak dira eta bakoitzak akuilatzen du bestea.

RAMUNTZO
GARBISU

Aiete biharamunak

Testuinguruari doakionez, izan aber-tzale ala ez, guztiak ados dira errateko Aieteko Bake Konferentzia behar-beharrezko elementu bat dela. Batez ere, hiru egun beranduago ETA erakundeak jakinarazten duen jarduera armatua-ren behin-betiko bukaera. Historialaria eta EH Bai-ko hautetsi den Peio Etxeberri-Aintzartek honela dio: “ETAren erabakiak posible egiten die [abertzale ez direnei] bide hori gurekin [abertzaleekin] batera hartzea, jendartearen onarpen soziala errazkiago lortu dezakete testuinguru berri honetan».

Baina dena ez da Aieten hasten eta urriak 17 horretan Ipar Euskal Herritik egondako ordezkariak zabala da frogia. Elkarlan hori 2000ko hamarkadan hazitzen dela azaltzen du Anaiz Funosas Bake Bideako presidenteak: “Frantziako Estatua soilik ETAren aurkako borroka-

Aurore Martinen atxiloteta ere mugarria izan zen babesa zabaltzen jarraitzeko. Argazkian Euskal Herriko lehen herri harresia, eta arrakastatsua gainera, Poliziak ez baitzuen lortu Martin atxilotzea.

tik [Baltasar] Garzonen teoria aplikatze-ra pasa izanak krispazio handi bat sortu zuen jendartearen eta eragileen artean”. Ezker Abertzaleko Aurore Martinen aurkako euroagindua izan zen krispazioaren punta: “Aldaketa sakon bat hasi zen orduan, emazte bat bere ideia politikoengatik atxilotzea eta espaniaratzea ezin zuten asumitu”.

Isilpeko lan bat abiatu zuten orduan. Ulermen eta gogoeta prozesu batean abiatu ziren hainbat eragile, tartean zeudela ikuspegi abertzaleetik oso urrun daudenak. “Jakirik eragile bakoitzak tenpus ezberdina daukala”, Funosasek zehazten du printzipioetariko bat izan

zutela bakoitzari bere iritzia bere erritmoan garatzen uztearena. “Fruitua ontzen ari den momentu horretan heltzen da Aiete”. Talde informal hori publiko egiteko gogoia piztu zien Aieteko gertakizunak; laster egin zutena, Bake Bidea izendaturiko taldea plazaratuz. Gogoeta eta lanketa horietarik atera zen 2014ko urriaren 24ko Baionako adierazpen publikoa. Konponketaren aldeko konpromisoan urrats berri bat izan zuten adierazpen hori. Brissonek dioenez, hitz bakoitza taldean landu, eztabaidatu, adostu eta idatzi izanak egiten du honen gauzapearen alde dabilela.

Elkarrekin lanean aritzen ikasirik

Elkarlana beste esparru batzuetan garatzen hasia zen lehenagotik. 90. hamarkadan abiatzen diren lurralde antolaketari buruzko gogoetei heldu behar zaie gaur egun dagoen elkarlanarentzako



ahala ulertzeko. *Euskal Herria 2010* eta ondotik *Euskal Herria 2020* urraspideetan konkretuki gauzatu zen lanerako gaitasun hau. “Gure arteko bereizketak gaindituz, abertzale eta ez-abertzale baita ere ezkerre eta eskuinaren arteko bereizketen gainetik pasaz lan egiten genuen”, Brissonen hitzetan. Lurralde antolaketa eta garapen politika bat marrazteko gomendioak adosten zituzten, hortik aurrekontu bat zekarten lurralde hitzarmenak izenpetzeko (2000, 2008 eta 2015. urteetan). Etxeberri-Aintzarrek ohartarazten duenez, lurralde antolaketari buruzko “ariketa intelektual” zein “laboratorio” gisa begiratu behar zaiela urraspide horiei; “ofizialki, aldarrikapen instituzional berezirik gabeko” tresna gisa.

Hain zuzen, Euskal Herriak Parisi exijitu aitortza instituzionalari elkor jarraituz, Parisek planteaturiko deszen-

2017ko apirilaren 8ko ETaren armagabetzearen eta Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aldeko borrokaaren artean “lotura argia” ikusten du Jean-René Etxegarai.

tralizazio politikaren barne kokatzen dira. Urraspide hauetarik sortu ziren Garapen Kontseilua 1994an eta Haute-Isien Kontseilua 1995ean. Abertzaleei doakionez, guztiak ez ziren iritzi berekoak: batzuk, aurka ziren, autodeterminazioarako baliorik ez eta “tranpatzat” zituztelako tresna horiek; beste batzuk haatik, desmartxan sartzeko hautua egin zuten, asebetarik ez izan arren. Urtez urte, desadostasunak baretu egin ziren eta poliki-poliki abertzaleen arteko batasuna agertu zen gaiaren inguruan, batez ere, Euskal Lurralde Elkargoaren eskakizunarekin.

Bide ezberdinak erabiliz, ezagupen instituzionalaren gaia eramaten segitu

zuten ordea abertzaleek. Abertzaleen eremutik haratago hedatuz ari zen aldarria: 1999. urtean, alderdi eta ideologia politiko ezberdinetako ordezkariak izenpeturiko *Ehunen Deia*, euskal departamenduaren alde 12.000 lagun bildu zituen 1999ko urriak 9ko manifestazioa, 2002. urtean sorturiko Batera plataforma eta ondotik honek antolaturiko herri galdeketa, manifestazio eta ekimen ezberdinak. “Gutxiengoarena zen aldarria gehiengoarena izatera bilakarazi du Baterak. Abertzaleak gehiengoan ziren plataforman, baina, beti jokatu izan dute errespetu handiz iritzi ezberdinak zituztenekiko. Bateraren indarra izan da”, dio Jean-René Etxegarai, Euskal Elkargoko presidenteari. Oroit gara nola euskal lurralde elkargoaren alde bozkatu zuen Hautetsien Kontseiluko gehiengo zabalak 2012an. Bide luzea egin izanaren frogak.

2017az geroztik, hiru lurraldeak batzen dituen Euskal Elkargoa dago osaturik. Egitura honek zuen funtsean, iazko irailak 23an, presoen alde Parisko manifestaziora deitzeko mozioa aho batez bozkatu. Egitura hori ETaren armagabetzean ere egon zen, Euskal Herriko hiru instituzioetarik bakarra: “Sentimentua neukan ezin genuela jendarte zibila bakarrik arriskua hartzen utzi, gure ardurak hartzeko beharra sentitu nuen”.

EHLG, ezin saihestua

Gaur egungo inplikazioa azaltzeko orduan, 2010ean burutu Euskal Herriko Laborantza Ganberaren auzia giltza erabakigarri gisa aurkezten du Etxegaraik. Apirilak 8ko armagabetzearen eta EHLGren aldeko borrokaren artean “lotura argia” ikusten du. Garaian, EHLGren presidente zen Mixel Berhokoirigoinen abokatua izan zen Etxegaraik. Orduak kontatu gabe, dohainik aritu zen defentsa lanetan. Orduan zituen hurbiletik ezagutu 2016ko abenduaren 16an Luhuson atxiloturiko Berhokoirigoin eta Txetx Etxeberri bake artisauak. Haien artean “konfiantza handia” dagoela dio. Baina, EHLGren eraginak bere pertsonatik haratago doazela dio: “Egun batez historialariek argira ekarriko dute Ipar Euskal Herrian buruturiko ekimen andana baten oinarrian dugula EHLG. Adibidez, Euskal Elkargoaren egintza fundatzailea dugu”. Azalpena emateko unean oroitarazten du nola Estatuaren ordezkari zen prefeta “zentralista, jakobino” baten aurka defenditu behar izan zuten, erabat politikoa zen borroka bat eramanez: “Aldarrikapen instituzional bat zen, laborantzaren sektorean eta balore zehatz batzuetan oinarriturik, baina, argi eta garbi, instituzionala zen borroka”. Auzia irabazi izanak ekarri garaipenaz gain, beste neurri bateko garaipena azpimarratzen du Etxegaraik: “Garaipen judizialaz gain, EHLGren lorpena izan da jendeen espirituak bereganatu izana, askori aldatu zaie errealitatea ikusteko moldea eta aurka genituen anitz gureganatu genituen”.

Jarrera aldaketak bi aldeetan

Elkarlana gauzatzeko aukera ezberdina egon arren, elkarrekin lanean ari zeko gaitasuna ukan behar da. Bidea egin da, jarrerak aldatu dira. Bilakaera hau aztertzeko unean, kontutan hartu

» MAX BRISSON, SENATARIA (ERREPUBLIKANOAK, ESKUINA):

“Bilakaera pertsonal batek ekarri du oinarrian neukan jakobinismoa biziki ahuldu izana”

» ANAIZ FUNOSAS: (BAKE BIDEAKO PRESIDENTEA)

“Frantziako Estatu Garzonen teoria aplikatzera pasa izanak krispazio handi bat sortu zuen jendartearen eta eragileen artean”

» JEAN-RENÉ ETXEGARAI (EUSKAL ELKARGOKO PRESIDENTEA):

“Garaipen judizialaz gain, EHLGren lorpena izan da jendeen espirituak bereganatu izana, askori aldatu zaie errealitatea ikusteko moldea”

beharreko elementutzat dauka ondokoa Etxeberri-Aintzartek: mugimendu abertzalearen pisua hauteskundeetan. Doi-doia 50 urte pasaño ditu mugimendu abertzaleak eta 35 bat urte hauteskundeetarako hautagaitza abertzaleak. 2000ko hamarkada hastapena arte emaitza xumeak lortu bazituzten ere, gaur egun hirugarren indarra eta gureka bigarren indarra da EH Bai. “Horrelako pisuarekin eragin politiko gehiago du mugimendu abertzaleak eta lerroak mugiarazten ditu, klase politikoa bere bide hertsitik desbideratzen hasiko da



ETaren desarmearen eguna, Euskal Herriko historian sartuko den eguna izango da. Lapurdiko, Behe Nafarroako eta Zuberoako gizarte zibila munduan aurrekaririk ez zuen desarme prozesuko protagonista izan zen.

BAKEAREN ARTISAUAK



eta hemengo eskaera batzuk integratu dituzte". Benetan sinesten dutelako ala interes pertsonalengatik, ezin argiki erran. Hala ere, urteak joan arau, erran daiteke hastapenean adierazpen soil izandakoa baino gehiago direla orain emandako urratsak. Gaur egun, gatazkaren konponketaren alde edota garaian, euskal lurralde elkargoaren alde egindako bilerak, manifestazioak, Frantziako Parlamentuan egindako hitzartzeak zein Pariseraingo bidaiak dira horren seinale.

Eskakizun bera badute ere, arrazoiak ezberdinak dituzte. Euskal lurralde elkargoaren aldarria da etsenplurik argiena. Abertzaleen iduriko, autodeterminazioaren bidean pauso berriak lortzeko tresna bat baldin bada, abertzale ez direnek Frantziaren baitan eraman beharreko deszentralizaziorako urrats edota lurraldearen garapenerako tresna gisa ikusten dute. Hala eta guztiz ere, beti erraza ez bada ere, eskakizunaren lorpene lehenesten dute guztiak.

Mezu abertzalea ere aldatu dela dio historialariak. Oposizioko mugimendu frontala izandakoa, 90. hamarkadaz goiti, oposiziozkoa izateaz gain, "alternatiba proposamen" bilakatzen dela dio. Etxebizitzaren alorrean eramandako lana dute adibiderik argienetarikoa.

Norberak eta parekoak bere jarrera aldatu izana azpimarratzen du Brissonek. "Ez dut kontua pertsonalizatu nahi, naizen pertsona txikiak garrantzia gutxi duelako historia honetan. Baina, gogoan dut nola pegatinak baziren nire aurpegiarekin, ia arma baten jopunta banuela kopetan". Horrelako pegatinik ez da gehiago agertzen. Kontuan hartu beharra dago ez dela pertsonak miran hartzen dituen euskal talde armaturik egon eta horrek ere erraztu duela hurbilketa. Behin eta berriz entzundako "Enbata zikina" laidoa ere isildurik da, lehen urteetan militante abertzaleek jasotako hil mehatxuak edota ukabildakad ere ez dira gehiago eta esparru politikoan hautetsi abertzaleen ahotsa entzuna da. Jarrerak aldatu dira, bi aldeetan, eta horrek dakar bi aldeek elkarrekin lanean aritzeko duten irekidura.

Gero hurbilari begira, bi helburu argi dituzte: batetik, preso politikoaren egoerari begira aitzinamenduak lortzea eta bestetik, bake prozesuaren aldeko batasuna jendartean ere errotzen eta hedatzen segitzea. ■

Emerson Cáceres 'Cacerolo'

Gaizkiaren errepresentazio dotorea, irribarre unibertsalak borobildua

Duela zenbait urte Salvador Dalí artistaren erretratu marraztu zuen Emerson Cáceres 'Cacerolo' pintore kolonbiarrak, aurpegi osoa zuri-beltzean, salbu eta ezpain ingurua. Gorriz margotu zuen, Batman komiki-sagako Joker gaizkilearen irribarre irudikatuz. Hura izan zen *Guasones* bildumako bere lehenbiziko obra. Joker, Guasón baita Kolonbian. Dozenaka pertsona ezagunen erretratuak marraztu ditu ordutik, mihise gainean batzuk, Bogota eta beste zenbait hiritako paretetan besteak, kaleko arteari dagokion balioa ematea helburu. "Poztasun mozorroa jantzia duen inkonformismoa" islatzen dute haren obrek; estereotipo sozialak ditu jo-puntuan, artistak berak azaldu digunez.



Jon Torner Zabala

@jtorner

Egiazki, ez dira ezpainak kolore ukitua daukaten elementu bakarrak. Gorriz marraztu ohi du buruko ile bat -bere emazte ilegorri Sararen ohoretan-, baita begien zuria ere. Eta arroparik ikusten bada, lepo ingurua purpuraz koloreztatzen du batzuetan, eta berde bizi-biziz gorbata, Joker edo Guasón maltzuraren ikur. Erretratuek badute beste ezaugarri bat: eskuin begitik behera malko batek egiten du irrist. Damua islatzen du malkoak, eta maitasuna ile gorriak.

"Nire erretratuetan Guasónen irribarre maltzurra marrazten dudanean, gaiztakeria irudikatu nahi dut gizakia- ren funtsezko elementu gisa", kontatu digu Cáceresek. "Uste dut giza-arimaren oinarritzko beste osagai batzuk sentimenduak direla". Sentimendu kontrajarriak azaleratzen dituzte haren marrazkiek, ezertxo ere ez baita dirudien bezalakoa. "Erretratu psikologiko hauekin pertsonaia bakoitzaren izaeran sakondu nahi izan dut", dio. "Eta konturatu

naiz guztiok dugula botere-izate korrosiboa alde ilun eta gaizto batean ezkutatuturik, tartean behin kanporatu egiten duguna".

Guasón (edo Joker) gaizkile egozentrikoa "antagonista ezin hobea" da sail honetan erretratatu dituen pertsonaia ezagunekin lotzeko, Cáceresek esan digunez: "Moral garaikidearen sinbolo bilakatzen joan da Guasón eta, denborarekin, arketipo, berarekin oso erraz identifika dezakegun ideia edo kontzeptua. Mesprenxagarria, maltzurra eta batzuetan absurdua. Guasónek neurrigabekeria irudikatzeko duen gaitasunak limurtu egiten gaitu". Artistaren hitzetan, kultura garaikidearen figura "liluragarrienetako bat" da Guasón: "Gaiztakeriaren errepresentazio dotore eta elokuentea da eta, hain justu, hori islatu nahi dut nire margolanetan".

Marraztu ditu Kolonbiako politikari eta estatu-buruak (Álvaro Uribe senataria, Juan Manuel Santos presidentea,



Bogotako alkate ohi Gustavo Petro...), baita atzeritar zenbait ere (Fidel Castro, Hugo Chavez, Adolf Hitler, Felipe IV. erregea...). Baina egin ditu ere bai pintore edota musikari ezagunen erretratuak, futbolari eta txirrindularienak,



Frantzisko Aita Santuarena, narkotrafikoa, ustelkeria eta feminizidioa salatzen dutenak... Ia irudi guztiek dute irribarre maltzur hori, gorrotoa-edo islatzen duen begirada, malkoa eskuin begitik behera eta ile gorria.

Picassoren 'Gernika', kolonbiar gatatzara egokitua

Pasa den urtean, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenarekin bat, koadro berezia marraztu zuen Cáceresek, Picassoren margolan ezaguna oinarri. Be-



KOMIKIAK INSPIRAZIO ITURRI

"Nire haurtzaroan, sozializatzeko birtarteko onak ziren komikiak. Ez zegoen Internetik, are gutxiago sare sozialik. Nire adineko umeok irudimena elikatzeke eremu ezin hobea aurkitzen genuen komikietan. Uste dut teknologia berriek, komunikatzeko bideek eta bereziki 'Komiki zinema' mehatxu direla aldizkari formatuko komikiarentzat. Mundua aldatzen ari da baina heroi eta gaizkileak behar izaten eta sortzen jarraitzen du".

Álvaro Uribe Kolonbiako presidente ohi eta senatariaren erretratua marrazten ageri da Emerson Cáceres. Dioenez, zuri-beltzak "errealismo handia" ematen die margolanei.

rrinterpretazio horretan azaltzen dira Cebú zezena ("armak hartu zituzten nekazari-paramilitarren ikur"), gerri-llak bonba moduan erabiltzen zituen as-toak, indigena desplazatuak eta hildako soldaduak. "50 urte baino gehiago dira gure herrialdea bonbardatzen ari gara, eta bakea lortzeko egiten diren ahaleginak ahalegin, badirudi gerran jarraitu nahi dugula", dio artistak. FARC-EP eta gobernuaren arteko bake-itunari baiezkobotoa eman zion berak, Santos presidentea ez duen arren estimu handitan.

"Picassoren *Gernika* XX. mendeko koadrorik garrantzitsuenak da niretzat", kontatu digu. "Gerraren basakeria oso argi islatzen du. Inportantea zen margolana gurera ekarri eta Kolonbian bizi ditugun izugarrikeriak azaleratzea, horiek berriro ez errepikatu eta bake-ituna babesteko".

Benetako artea, helburu komertzial hutsaz harago

Bogotako arte galeria batean erakutsi zuen koadro hura Cáceresek, *Hiperreal* erakusketa-aren baitan. Maiz galdetu diote zein dituen gogokoen: kaleko paretak ala mihiseak. “Biak dira beharrezkoak eta elkarren osagarri”, dio. “Kalea funtsezkoa da gure ikuspuntuak islatu eta jendearen erreakzioa bilatzeko; al-diz, galeria batean erakustek laguntzen digu artelanari izaera komertziala ematen. Oso baliagarriak dira formatu biak”.


Bere hitzetan, gaur egun egiten diren artelan askok ez dute helburu komertziala besterik. “Publikoak, oro har, benetako historiak ikusi nahi ditu, baina arte modernoak ez ditu asko kontatzen”, esan digu. “Erraz saldu daitezkeen, dekoratibo hutsak diren eta edukirik ez daukaten koadroekin inpaktua lortzea bilatzen dute artistek. Arteak asko du esateko munduaz eta gertakariez, pinturak behar du izan bizi dugun garaia-aren ispilu, hori da nire margolanen gaia, erretratatu nahi dudana, pintore garaikideek kontatu nahi ez dituzten edo kontatzeak beldurtu egiten dituen benetako historiak”.

Ondoko muralak, goitik behera

Jokerren irribarrea, ile gorria, negar-malkoa eskuineko begitik behera... “Guasones” saileko ohiko osagaiak ditu Kolonbiako presidente Juan Manuel Santosen erretratuak.

‘Gernika’ koadroa Kolonbiako errealliterata egokitu du Cáceresek, bakearen aldarri itzela delakoan. Picassoren elementuak hurbileko erreferentziengatik ordezkatu ditu.

2016ko martxoan margotu zuen Felipe VI espainiar erregearen erretratua, Madrilgo Tabakaleran, Europar Batasunaren “hipokresia” salatzea xede. “Ongi etorri errefuxiatuak” diote, baina gezurra da hori; inork ez ditu nahi eta bidegabe tratatzen dituzte”.



Galdetuta bere iritziz artea ote den injustiziak borrokatzeko arma bat, ezetz erantzun digu: “Handiustea litzateke artearen bidez gizarte-ordena alda daitেকেela pentsatzea. Uste dut artea dela berezko lengoia duen adierazpidea, emozioak adieraztea helburu duena, eta maila tekniko handiekin egiten dena. Artearen bidez garena eta sentitzen duguna islatzea lortzen dugu. Artista batzuek ikusleen bihotzak kolpatzea bilatzen dute. Niri buru-barnera heltzea eta kontzientziak astintzea interesatzen zait”.

Zentsuraren atzaparra

Bogota iparraldean alderik alde zeharkatzen duen Suba hiribidean mural handi bat marraztu zuen Cáceresek. Álvaro Uribe eta Juan Manuel Santos ageri ziren, eta lelo bat: “Bakea, Justizia Sozialarekin”. Margolanak txaloak jaso zituen, baina kritika gogor-rrak ere bai. “Cacerolo, badakigu non bizi zaren” egin zioten mehatxu, “gerrillak finantzaturiko artista zara”. Marraztu eta hilabete gutxira ezabatu egin zuten mural hura. Bestalde, Miami-ko galeria batean erakutsi zituenean Fidel Castro eta Hugo Chavez amerikar agintarien erretratuak, jendeak suntsitu egin nahi izan zituen.

Cáceresek kontatu digu ka-lean egiten dituen artelan gehie- nek gai politikoak dituztela ardatz. “Politikoki hain polari- zatua dagoen herrialde honetan, maiz egiten dugu tupust obraren mezua ulertzen ez duten fanati- koen zentsurarekin. Erretratuak ezabatu soilik ez, mehatxatu egi- ten gaituzte sare sozialen anoni- motasuna baliatuz”.

Dena dela, dioenez kaleko ar- teak garai oso onak bizi ditu Ko- lonbian. “Denbora gutxian gure hiriburua erreferente bilakatu da, munduko hiriburu handien pare gaude. Atsegin ematen du Kolonbiako artistak mundu oso- ko jaialdietara gonbidatzen di- tuztela ikusteak. Kaleko artea esportazio-produktua da”. ■

Alzheimerra

Gaitza ezagutzeak ematen duen indarra

Konponbiderik ez duen garuneko gaitz degeneratiboa da alzheimerra. Pairatzen duen pertsona orok 24 orduz zainduko duen norbait behar du. Begoña Rodriguez da gaixoaren alboan dagoen pertsonetako bat.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak



*Begoña Rodriguez pasai donibanearra
AFAGI elkarteko presidente-ordea da gaur egun.*

Duela ia hamar urte diagnostikatu zioten alzheimerra Begoña Rodriguezen senarrari. Hasieran kolpe handia jaso zuen; ezin sinetsi, ezin onartu. “Eta nola egin honi guztiari aurre?”, galdetzen zion bere buruari. “Egoera gaindiezina zaizula konturatzen zarenean laguntza eskatzea erabakitzen duzu”. Senarra gaixotu eta urte erdira AFAGI elkartera jo zuen, gaixoan eta zaintzaileen bizitza kalitatearen defentsan lan egiten baitute.

“Harrera zoragarria izan nuen. Lehen egunetik sentitu nuen lagunduko nindutela eta lasaitu handia hartu nuen. Konfiantzaz gerturatu eta lehen pertsonan hitz egiteko aukera izan nuen. Gure egoera nahikoa gogorra zen jada, baina laguntza jasotzeko prest nengoen eta gauza asko gaintitzen lagundu dit. Sufrituko duzu, baina edozerri aurre egiteko indarra hartzen duzu”, dio. Azken hiru urteetan senarra ingresatuta dagoela kontatu digu, eta “erantzukizuna gutxitu den arren” laguntza eskertzen jarraitzen duela: “Lana gutxitu zait, ez dit hainbesteko kezka sortzen, baina emozioak eta sentimenduak hemen daude eta behar dut”.

AFAGI Gipuzkoan duen lan-taldea rekin aritzen da Rodriguez; Donostian dute egoitza nagusia. Edonor hurbildu daitekeela nabarmendu du, eta zerbi-

tzua doakoa dela. Gaixotasunaren nondik norakoak ikasi eta lantzen dituzte psikologo eta gizarte langileekin batera, eta nork bere burua edota gaixo dagoen pertsona zaintzeko tresnak eskaintzen dituzte: “Gauzak ahazten dituztela bai, baina hori bakarrik izango balitz... Egunerokoan gauza asko sortzen dira eta tresnak behar dira guztiari aurre egin eta erantzuteko. Ni ikasten eta ikasten aritu naiz eta jakiteak indar handia eman dit. Oso indartsu egin nau”.

Duela 30 urte familia barruko gaixotasuna zen alzheimerra. Adinari egokitzen zitzaion gaitza zen, ezezaguna. Egun, gero eta gehiago atzematen da. 47.000 kasu inguru daude Hego Euskal Herrian eta 15 urtetan kopurua bikoiztu egin daitekeela aurreikusten dute.

Komunikazioa gako

Bakardadea, kezka, haserrea, depresioa, lotsa, ezintasuna eta errua dira gaixotasuna ondotik bizi dutenentzako albo-kalteak. Rodriguezek aipatu duen moduan, beharrezkoa da hori zaintzea: gaiaz informazioa biltzea, hitz egitea, norbere buruari denbora eskaintzea, osasuna zaintzea, laguntza eskatzea, mugak ipintzea, pisua banatzea... Jendarteak gaixotasuna estigmatizatuta duela azpimarratu du: “Egoera dagoen

bezala, sozializatzea oso zaila da eta beharrezkoa da. Badira denek jakin beharko genituzkeen oinarritzko gauzak. Gaixotasuna dutenek arazoak eman ditzakete, baina haiengatik zerbait egin nahi baduzu ez da hainbesteko lana”.

Horretarako ezinbestekoa da elkarren arteko komunikazioa lantzea. Rodriguezek gako batzuk eman dizkigu: hizkuntza erraza eta ahots goxoa erabili, ez tratatu tuntuna edo haurra izango balitz bezala, erantzuteko denbora utzi, zaratak saihestu, ez kontra egin ez baitakite arrazoitzen, begietara begiratu, errepikatu behin eta berriz, keinuz mintzatu eta behar duten neurrian soilik lagundu. Gaixoeke diote “utzidazu egiten; polikiago egingo dut, baina egingo dut”, edo “ze mania, beti korrika eta korrika zabiltzate; polikiago mintzatu”. Haien autonomia ahalik eta gehien mantentzea funtsezkoa da.

Gaur egun AFAGIko lehendakari ordea da Rodriguez. Hitzaldiak eman, informatu, senideekin hitz egin eta proiektu berrietan parte hartzen ari da. “Hainbestekoa izan da jaso dudana laguntza, nire buruari zin egin diodala denbora dudana bakoitzean nik ere lagundu egingo dudala. Kostatu zait gauza askori aurre egitea, baina horregatik bakarrik pozik nago orain. Edozertarako nago prest”. ■

Menderatua da beti diskriminatzaile



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaiz

Nahiko oharkabea igaro da euskaldunoi epaitegietan eman dituguten azken kolpea. Hitz potoloz jositako titularren bitartez kontatu zaigu EAEko Auzitegi Gorenak indargabetu egin duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Normalizazio Plana, erdaldun elebakarrak “diskriminatzen” dituela argudiatuta. Zer gertatu da baina? Euskaldunek erdaldunak diskriminatu? Nola baina?

1- Euskaldunok bizi dugun zapalkuntza egoerara ez gara kausa meteorologikoengatik heldu. Inork ez du bere hizkuntza albo batera uzten sufrimendurik gabe. Euskal Herrian euskaraz mintzatzegatik eskolan jipoituak, kalean umiliatuak, zigortuak eta orokorrean asko sufritutakoak milaka eta milaka herritar izan dira azken mendeetan. 40 urteko Frankismoa edo *Euskaldunon Egunkaria* armekin itxia euskaldunon aurkako jazarpenaren adierazle gordinenak ditugu. Aurrekari hauekin, azal gogorra behar da euskaldunok erdaldunak “diskriminatzen” ditugula esateko. Ez da hala.

2- Feministek agerian jarri dute “Justizia” delakoa matxista dela. “Matxismoa gizarte osoan indarrean dago, eta beraz, salaketak aztertzen dituzten erakundeetan ere bai: sanitarioetatik peritoetara, ea bortxatu zintuzten ala asmatu egin zenuen erabakiko duten epaileetatik pasata”, dio Barbijaputak Eldiario.es-en. Gauza bertsua gertatzen da euskaldunok. Salbuespenak salbuespen, erdaldun elebakarrek erabakiko dute euskaraz –euskaldunok alegia– aurrerapausoak eman ditzakegun ala ez. Dena “Justizia”-ren izenean. Zer espero behar dugu epaietako batean “euskara hizkuntza espainiarra” dela botatzen digutenengandik?

3- Gipuzkoako Foru Aldundiaren bost neurri atzera bota berri dituzte lasai. Bat aipatzearren, Gipuzkoako Foru Al-

dundiak ezin duela webgunean lehentasunezko hizkuntza euskara jarri, nahiz eta webgune eleaniztuna denez, gaztelaniazko eta ingelesezko loturak eskura jarri. Epaian badiote euskara ezin dela lehentasunezko hizkuntza izan, zein izango da lehentasunezkoa elebitasunaren izenean? Ttak. Bai. Eta eskema sinplista bera erabiliz, gaztelaniazko lehentasunezko hizkuntza izateak ez al ditu euskaldunak diskriminatzen? Baina zer txiste da hau?

4- Atzera bota duten beste neurri bat Aldundiak azpikontratatzan dituen zerbitzuetan erakunde honek hobetsitako hizkuntz irizpideak ezartzea izan da. Kasu zehatz bat jartzearren, Aldundiaren izenean lan egiten duten zahar etxeetako langileak kontratatzerako orduan, euskaraz jakitea eskatzea debekatu dute epaitegiek, eta hala herritarrek zerbitzu hauek euskaraz ere jasotzeko eskubiderik ez dute ziurtatuta izango. “Gaztelania hitzunik diskriminatzen” omen ditu hori eskatzeak ere. Egoera hau betiko izango dela esaten ari zaizkigu?

5- Debekatu duten beste pauso bat, Aldundiak prentsaurrekoak euskaraz hutsez ematea da, nahiz eta kazetariei informazio guztia gaztelaniaz ere idatzita pasa. Horrek erdaldunak diskriminatzen omen ditu. Non dago diskriminazioa telebistan eta irratan euskararen presentzia handitzea bilatuta, areago, kazetaria bere hizkuntzan ere informatzeko neurriak ere hartzen badira? Zenbat aldiz gertatu zaigu kazetari euskaldunoi “egunon, *buenos días*” entzun ostean gaztelania hutsezko aurkezpenak jasotzea, inongo azalpenik eman gabe gure hizkuntzan? Non dago diskriminazioa?

6- Adibideak jartzen jarrai genezake luze. Nekagarri ere egiten da. Astun Espainia eta Frantziaren zama. Komu-



nikazio kanpainetan ezin da euskaraz gaztelaniaz baino handiago idatzi, kaleak gaztelania hutsezko karteletz jositak ditugun bitartean. Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarte, erakunde edo pertsonen ezin zaie eskatu euren dokumentu, euskarri, publizitate edo ekitaldi publikoetan euskara erabiltzeko. Dena Justiziaren izenean.

7- Euskara arriskuan dagoela Unesco ere esan arren, Espainiako eta Frantziako estatuek eman dezakegun edozein pauso oztopatzen, blokeatzen



saiatzen jarraitzen dute. Ez da oso azkarra izan behar atzean dagoen posizio politikoa igartzeko. Gaur egun hala ez esan arren, garbi hitz egindakoak

ditugu, Espainiako Carlos III.a erregea adibidez 1770ean:

“Que de una vez se llegue a conseguir el que se extingan los diferentes idiomas

que se usan en los mismos dominios y sólo se hable el castellano”.

8- Izenak jakitea garrantzitsua denez, nor dira legearen izenean euskaldunok azpiratzen aritu diren epaileak? Carlos Urquijo inkisidoreari men eginez, 2016ko irailean Victor Mora Gaspar izan zen ebatzi zuena ondorengo: “Euskara hizkuntza orokor eta orokortu gisa Administrazioan ezartzeak, beste hizkuntza ofizialarekiko erabileran egoera diskriminatzaileak sor ditzake”. Aldundiak errekurtsioa jarri ostean, 2017an Luis Javier Murgoitio Estefanía, José Damián Iranzo Crezo eta Margarita Díaz Pérez izan ziren adierazi zutenak, baietz, euskaldunok gaztelania hitzunik diskriminatzen ditugula goian azal dutako pausoak emanez gero. Eta azkenik, 2018ko urtarrilaren 4an, urtea ongi hasteko ondorengo epaileek berretsi zuten kolpea: Luis Angel Garrido Bengoechea, Ángel Ruiz Ruiz, Jose Antonio Alberdi Larizgoitia, Maria José Artaza Bilbao eta Trinidad Cuesta Campuzano. ARGIAko lankide beteterano batek dioen bezala, izen-abizenak gehiago aipatu behar ditugu euskal kazetariok.

9- Gure herrian euskararekin gaztelania hitzunik diskriminatzen ditugula esaten diguten horien Estatuaren zerbitzariak mundu osoan ehunka hizkuntza desagerrarazitakoak dira, inongo damu eta kalte-ordainik gabe gainera. Eta ez gaitezen kezatu, Zoido Barne ministroak orain gutxi esan bezala, “euskal herritarrek daukazuen autogobernu maila mundu osoarentzat adibide bat da, baina hori bai, 155. artikulua denei aplikatu dakieke”. Ez dezagun eskatu askatasuna, ez diezagutela daukagun apurra kendu. Bitartean Koldo Izagirrek *Autopsiarako Frogak* maisulanean zioen bezala, menderatua da beti diskriminatzaile. Zakurraren putza.

10- Bi galdera: batetik, ezetz asmatu zein hizkuntzatan dauden idatzita epai hauek? Bestetik, halakoen aurrean zer egiteko prest gaude euskaldunok? ■

BABESLEA: **HONDARRIBIKO EUSKARA ZERBITZUA**



Hondarribia
euskaraz bizi



Herbizidei gerra biologikoa



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Ziza hankaurdina edo oinurdina (*Clitocybe nuda*). Onddo honek pestizidak eta herbizidak degradatzen ditu.



Plastikoak jaten dituen har baten berri eman dit lagun batek. Eta ez dut gustuko gaia. Egundaino bezala. Aitzakia ederra ematen zaie plastikoa gehiago egin nahi dutenei. Ez da alternatibak sortzen in-darrak jartzen, segi plastikoari aurrera-bidea ematen!

Antzeko beste gai bat dakarzut gaur: onddo batena. Euskal Herrian ezaguna dugun onddo batena. Ziza hankaurdina edo oinurdina deitzen dena, *Clitocybe nuda*. Zenbaitek beste izen batzuk ere erabiltzen dituzte: *Lepista nuda*, *Rhodopaxilus nudus*, *Tricholoma personatum* var. *nudum* eta abar, baina ez noa mikologoaren sagardotegian sartzera...

Ziza hankaurdina perretxiko jangarria da. Udaberrian koniferoen sailtan haz-

ten da gehienetan, baina baita hostoza-balenetan eta bien inguruko belazeetan. Ingalaterran, Frantzian eta Herbehereetan ekoitzi egiten dute, baina agidanean ez da basatia bezain gustagarrikoa.

Gustukoa edo ez, ziza honek lurreko materia organikoa desegin eta jaten du. Lan hori entzima batzuekin egiten du: lakasak. Bazkaz gain entzima horiek ikaragarriko gaitasun berezia ematen diote perretxikoari: agronomia ustez aurreratuenak, hau da, kimikoenak eta kutsatzaileenak sortu dituen gaizkile kriminal txarrenetako batzuk andeatzen ditu, degradatu. Jeneral militar bat kaporal ziztrin bat bihurtzea bezala. Zizak, entzimen medioz, pestizidak, herbizidak eta koloreztatzaile sintetikoak an-

deatzen ditu. Bereziki munduan gehien erabiltzen den herbizida, glifosatoa, eta ehungintzan erabiltzen diren koloreztatzaileak. Koloreztatzaile horiek ikaragarriko kaltea sortzen dute ingurumenean; eta glifosatoaz zer esango dizut... Beste perretxiko batzuk ere -adibidez larruki koloreanitzak (*Trametes versicolor*) eta belarri landuak (*Pleurotus ostreatus*)- antzeko lana egiteko gai ote diren ikertzen ari dira.

Erein dezagun ziza hankaurdina gure baratzeen eta soroen inguruetan. Lurra garbituko digute, eta guri bazka eman. Baina nekazaritza kapitalista egiten dutenentzako koplari gabe, aurrea jarraitzeko ez diezaiela aitzakiarik eman. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Epa! Pinu baso txiki bat bota behar dut laster eta bota ondoren zein zuhaitz landatu erabaki nahian nabil. Urkia, haritza eta pagoa landatzea pentsatzen ari nintzen. Egokia iruditzen zaizu hiru hauek baso berean nahastea? Baso hau ipar-ekialdera begira dago, Urko mendiaren magalean (Aginaga auzoan, Eibar), 500 metroko altueran. Zein zuhaitz esango zenuke direla bertakoak?

Xabi

Baso berria sortzeko ez da hirukote txarra. Haritza da hiruren artean berozaleena, pagoari hezetasuna gustatzen zaio eta urkiak hotza maite du. Nahi baduzu beheko aldean

haritza jarri, goian pagoa eta urkia beste bien artean, nahasian.

Bertako zuhaitzak asko dira. Zeuk hautatutakoez gain lizarra, astigarrak, ezkiak, otsolizarra, maspila edo basagurbea, hostazuria, zumarra, ametza, artea, artelatza, erkame-tza, hagina, pinu gorria eta abar. Basoa osatzeko ertzetan edota tartean jar ditzakezu fruitu arbola basak (hurritza, maaltza, sagar makatza, oilarana, gurbitz, elorri beltza...) eta baita zuhaixkak ere.

Hostajea galtzen ez duten landareak neguaren aurretik edo atzetik landatu behar dira. Urriaren amaiera edo azaroaren hasiera, toki oso hotzetarako egokia da. Martxo edo apirila edozein tokitarako ona. Hotzaren beldur bazara apirila arte itxaron, baina bestela martxoan ere lasai landatu. Lorontzietan izateak bere abantailak ditu, nagusia, sustrai guztiekin jarraituko duela landareak. Bestalde, lorontzitik ateratzerakoan sustraiak azpiko aldean kiribilduta daudela ikusten baduzu, kiribilak askatu eta bizitoki berriko zuloan sustraiak luze-luze eginda jarri.

MAGHÚ

Eguzki-lorearen hazitik sortutako proiektua



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: MAGHÚ

Sinbologia handiko lorea da Euskal Herrian eguzki-lorea. Baserri eta etxeetako ate edo leihoetan ikusiko dugu maiz, babesaren eta indarraren erakusle. "Gure arbasoen garaietatik, eguzki-lorea magia handiko lorea da. Iluntasunetik eta espiritu gaiztoengandik babesten gaitu eguzkiaren loreak" azaltzen dute Maghúko webgunean. Babes eta magia hori hazteko ilusioarekin abiatu zuten 2016an proiektua Marga Pesos Iñiguez eta bere bikotekideak Elosun (Araba).

Propietate handiko lorea

Hasieran, etxeko atean jartzeko eguzki-lorea nahi zutela azaldu du Pesosek, baina ingurumena kaltetu eta natura inbaditu gabe lortu nahi zuten. "Eguzki-lorea babes-tua dago galtzeko arriskuan dagoelako. Horregatik gure buruan ez zen sartzen mendira joan eta handik hartzea", dio. Antzeko egoeran jende gehiago ere egongo zela pentsatuta, zera erabaki zuten azkenean: eurak izatea etxeko lursailean eguzki-loreak haziko zituztenak. Horrela sortu zen Maghú proiektua, eguzki-lorearen hazietatik abiatuta.

Eguzki-loreak jasotzen hasi zirenean, erabilera anitzetarako frogak egiten hasi eta mundu berri bat deskubritu zuten. "Batez ere dermatitisa edo azaleko arazoak dituztenentzat emaitza oso onak ematen dituen krema egiten hasi ginen eguzki-lorearen sustraiarekin", dio Pesosek. Gerora etorri dira gorputzerako olioak, xaboiak, lozioak, eta baita eguzki-lorearen sustraiarekin egindako 30^oko likorea ere. Maghúko dendako produktu guztiek dute eguzki-lorea oinarrian.



19 hilabeteko prozesu mantso bezain polita

Eguzki-lorearen haziak ere saltzen dituzte Maghún. Pesosek azaldu duenez, 19 hilabetekoa da hazia landatzen denetik lorea jaso arteko prozesua. "Oso prozesu polita da, ia bi urteko itxaronaldia, zaintza eta mimoak dira". Norberak lorea landatzeak bere puntu magikoa duela uste du proiektuko kideak, baina horretarako nabarmendu du nahitaezkoak direla pazientzia, konstantzia eta presentzia.

Maghúko kideak aitzindariak dira eguzki-loreen hazkuntzan, eta arian-arian ikasi dute, loreak berak irakatsi dienaren arabera, pixkanaka. Horregatik azpimarratu dute ahalduntzearen mezua: nahi bada, ahal da. "Maite duzun hori zaintzea eta ahalduntzea, horiek dira zabaldu nahi ditugun bi mezuak", adierazi du kideak. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Otsailak 28: Iruñea

19:00etan Errotxapeako Ingurumen Heziketarako Museoa, *Landareak Lantzen* gida-liburua aurkeztuko du Jakoba Errekondok.

Urtarrilak 31: Barakaldo

Aire gozagarriak egiteko tailerra. 11:00etan, Ramon Rubial Lorategi Botanikoan.

Urtarrilaren 30 eta 31: Gabiria

Sagarrondoaren inausketari eta txertaketari buruzko ikastaro teoriko eta praktikoa. Erbie elkartean, 15:00etan hasita. Gabino Muruak gidatuko du ikastaroa. Izena emateko, deitu 679 97 23 72.

Otsailak 1: Azkaine

Lapurdiko txotx denboraldiaren irekiera, Txopinondo sagardotegian.

Otsailak 3: Laudio

Laudioko txerriaren azoka. Txerria erre eta garbitu egingo dute eta odolkiak egin. Eskulangintza produktuak, Txarripa sukaldaritza lehiaketa eta erromeria ere izango dira.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Azoka ARGIAren erraminta da, Euskal Herriko edozein txokotako salgaiak erraz ezagutu, erosi edo saldu ahal izan ditzagun. Oso aproposa eduki interesgarriak sortzen dituzten eragile eta herritarrentzat eta beren ohiko esparrutik Euskal Herri osora ezagutzera eman nahi dutenentzat. Eta alderantziz: zenbat gauza preziatu eskuratu ditugu halako herriko azokan, beste hango txosnan edo hurrengo erakusmahaian? Orri honetan astero salgai batzuk bistaratuko ditugu. Denak ezagutzeko edo zure ekoizpenak salgai jartzeko:


www.argia.eus/azoka

GERRAKO IPUINAK liburua + NOIZ ARTE JUSTIZIARIK GABE CD-a

Maria Asuncion Sunti Amilibiak 1936ko gerraren inguruko kontuez idatzi zituen narrazio eta ipuinen artetik, lau euskaratu eta *Gerrako ipuinak* lana argitaratu du Intxorta Kultur Elkartek. Poemak, kantuak eta marrazkiak batzen ditu. Elkarre horretako kide den Juan Ramon Garaik dio, "ahaztuta geratu ziren herrietako eta herrixketako errepublikano, abertzale, miliziano eta gudari haiek gogora ekartzeko" idatzi zituela ipuinok Sunti Amilibiak.

• **Oharra:** Eskiera egin eta bi asteko epean jasoko dira liburua eta CDa.

15 €



Gerra eta gerraostearekin lotutako beste material batzuk



Zamorako landan liburua

Jon Etxaberen biografia, Intxorta Kultur Elkartek argitaratua.

15 €



Gerrako garrak Oñatin liburua + DVDa

Gogoratu Guran taldearen lana. 372 orri ditu liburua.

25 €



Malko gorriak DVDa

Gerra zibilak Aretxabaletan izandako eraginen bideoa, Intxorta Kultur Elkartek argitaratua.

5 €



Hizkuntzak batzen dituen sari anitzak



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

13:30ak aldera heldu garenok tartea izan dugu Usurbilgo Atxega Jauregiaren atarian ardo baten laguntzaz aspaldi ikusi gabeko lagunekin eta orduantxe ezagututakoekin hitz-aspertu txiki bat egiteko. Abisua pasa digute barrura sartzeko garaia dela, eta aurten mahaikide nor izango ditudan begiratzeko asti labur bat hartuta, sartu naiz; egunaren kronikatxo egin behar dudan aitzakian normalean tokatzen ez zaidan moduko bazkari ederraz gozatzeraz.

Olatz Korta lankideak egindako aurkezpenarekin sartu zait lehen zalantza. 29. ARGIA Sariak esan du. “Zer kristo kontatu behar dut nik kronika honetan? Ni baino zaharragoak dira-eta sari hauek”, pentsatu dut. 29 urteotan nahikoa kontatuta egongo da ARGIA Sariez! Beraz, irakurle, sari hauetako protokolo guztiak nola funtzionatzen duen ziur asko nik baino hobeto jakingo duzunez, nik xume-xume kontatuko dizut nire begiek eta belarriek jaso dutena.

Euskal Kulturaren Gailurra dirudite mahai batzuk, gai sakon eta garrantzitsu hitz egiteko gune. Ni ez naiz horrelako lekuen berezikizale, eta nire zorionerako, jauregi osoan zegoen ingeles bakarria tokatu zait alboan. Ingeles euskalduna! Eta harekin aritu naiz solasean gustura asko. Euskara irakasle lanetan

dabilenari interesatzen zaio zerk motibatu zuen ingeles bat gure hizkuntza ikastera, eta horretaz jardun gara; edo baita Euskal Herriko hedabideek bezala erakundeek euskarari ematen dioten garrantziaz (edo garrantzi ezaz).

Lagun anglosaxoi-euskaldunak eman dit kronikarako pista. Hizkuntzak batzen gaitu Atxegan elkartutako guztiok, eta sariak eta saridunek ere horixe dute oinarri. Ez aurten bakarrik; urteak joan, eta urteak etorri, 29 urtez. Eta jabetu naiz zer arlo diferentetan lortzen den euskara oinarri izatea, eta zer arlo diferentetako lagunei banatzen zaizkien sari hauek. Estitxu Eizagirrek bere diskurtsoan ondo esandako esaldi batek dioen bezala: jakin ala ez jakin, ez delako berdin.

Zorionak saritu guztiei. ■

Balioetan oinarritutako sariak

Euskal kultura eta euskara lau haizetara zabaltzeagatik (dela musikaren edo kirolaren bidez), berdintasunean gizarte justuago bat lortzeko ahaleginengatik, ingurumena errespetatu, babestu eta informazioa zabaltzeagatik, eta mundu honi kolorea eta irribarrea jartzeagatik banatu dira 2018ko ARGIA Sariak.

PRENTSA

“Harmaila” aldizkaria

Ez da urtebete ere pasa *Harmaila* kirol-letako euskal komunikabideak sarean ateak ireki zituenik, eta prentsa idatzian lehen aldizkaria argitaratua du dagoneko. Lasai, patxadaz irakurtzeko kirol-prentsa egitea dute helburu, “egunerokotasuneko albisteetatik eta betiko jokoetatik pixka bat aldendu eta kirola aztertzea da *Harmailaren* xedea”, dio Eñaut Barandiaranek, hiru editoreetako batek. Euskara hutsean. Kirola eta euskara uztartzen dituen euskarri baten beharra ikusi dutelako egin dute proiektu honetara salto.

Kirola patxadaz aztertzeak ematen die beste begi batzuekin begiratzeko aukera. Kirola berdintasunean lantzeko eskatu nahi diote harmailari, futbolaz edo esku-pilotaz gain beste hainbat kirol ere ezagutarazi. Eta papereko lehen zenbaki horretako editorialean adierazten duen moduan “kirola politikarekin nahasian” egon ohi dela diote, batez ere profesional-mailan oso kritikagarriak diren zenbait jarrerara badirela, baina plazaratu nahi dituztela, baita ere, kirolak dituen eta gizartearentzat baliagarri diren beste balore batzuk.

IRRATIA

“Ekosfera” irratsaioa

8 urte. 350 programa. 500-700 gonbidatu. Horiek dira Jokin Aldazabalek Euskadi Irratiko Ekosfera saioaz eman dizkigun datuak. “Oso pozik jaso ge-

nuen sariaren berria; gurea bezalako programa txiki eta apalak ARGIA Saria jasotzea eskertzekoa da”, adierazi du Aldazabalek. “Baina meritua beste askorena ere bada, jende askori eman behar dizkiogu eskerrak, eta ez ditut ahaztu nahi Arantza Txintxurreta, Kristina Zuza eta Josu Lopez Gazpio kolaboratzaileak”, jarraitu du.

Energia berriztagarriak, mugikortasuna, hondakinak, ura, ibaiak, lurrikarak edo tren lasterra bezalako gaiez aritzen dira saio hauetan; eta azken mendeen egindako txikizioak ikusirik, sarri kutsu katastrofista izan dezakete gai hauek. “Gizakiarekin errukiorra izan nahi dut, genetikoki momentuko emozio eta sentsazioek bideratuta jotzen baitu, bere erabakiek izango dituzten ondorioak ondo ezagututa ere erabaki berarekin jarraitzen baitu. Baina guk ingurumenaren, energiaren arloetan mundu hobexeago bat izan eta ondorengoei uzteko ahalegintxoak egiten ari direnei eman nahi izaten diegu tartetxo”, azaldu digu sarituak.

INTERNET

Gabi de la Maza (txantxangorria.eus)

Jaso dezala eskua Youtuben Txantxangorriaren karaokerako euskal kantaren bat sekula erabili ez duenak. Gure euskal mundu honetan inor gutxi topatuko dugu. 2.200dik gora abesti azpidatzi ditu. Baina nola hasten da norbait horrelako lana hartzen? 37 urtez irakasle aritu da de la Maza, orain hiruzpalau hi-

labete erretiratu da, eta berak kontatzen du ondoen Txantxangorriaren ibilbidea: “Euskal Girotze Barnetegiak antolatzen hasi zen Hezkuntza Saila B ereduak ne-rabeak eskolaz kanpo modu informalean euskarara gerturatzeko. Astebeteko barnetegi hauetara gure ikasleekin joaten ginen, eta euskal musika zen nire tresna garrantzitsuetako bat. Youtube sortu aurretik hasi nintzen abestiak karaokeatzen, baina 2008tik aurrera hasi nintzen Youtube-ra igotzen”.

Hamar urte hauetan euskal kantagintzako abesti historikoetatik hasi eta azken berrikuntzetaraino jarri ditu azpizatza denon eskura.

Gabi de la Mazak ez zuen berehalakoan pentsatuko, ikasleak motibatze-ko material hau sortzen hasi zenean, 2017an euskaraz gehien bisitatu den kanala izango zenik!

IKUS-ENTZUNEZKOA

Bertsolari Txapelketa Nagusiari jarraipena ETBn

“Pozez” hartu dute Uxue Alberdik eta Aitzol Barandiaranek ARGIA Saria, Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusiari egindako jarraipen-lanagatik. Jarraipen zabala egin zaio telebista publikoan txapelketa nagusiari, eta “esfortzu eta ahalegin handia” izan dela aitortu du Barandiaranek, baita “arrikuak hartu” dituztela ere. “Programaren pisua edo mamia Uxuek eraman du, nik saioaren gidari-papera hartu dut”, aitortu digu, eta eskertzekoa da



rol ohikoetatik atera eta ikusleari aditu emakumea eskaintzea.

Bertso-saioak beste begi eta belarri batzuekin ikus-entzuteko tresnak eskaini dituzte, egindako lana baloratzeko gakoak eman dituzte, azaldu dute artista zer egoeraren aurrean zegoen eta horrek zertan baldintzatzen zuen bere sormena... Langintza ulertzeko azalpenak eman, eta bakoitzaren ezaugarriak definitu dituzte. “Asko eta ondo busti da Uxue, errespetuz, eta lan bakoitza modu zintzoan baloratuz. Eta muga irristakor horretan kritika zintzoak egin ditu”, azpimarratu du Barandiaranek.

Emankizun hutsa egitetik urrun, gaian aritutako bi gazteek egindako lana sari-tu du ARGIAk.

SUSTAPENA

Iruñeko Udala, Berdintasun Saila

“Eraso sexistarik ez, Iruñea aske”. Horixe izan da Iruñeko Udalak hainbat gizarte eragilerekin eta talde feministekin elkarlanean egindako 2017ko Sanferminetarako estrategia komunikatiboa. Eta horixe bera da sustapen ARGIA Saria jasotzeko arrazoia.

Jaiak gozatzeko dira, kalean gora eta behera ibiltzeko, jende berria ezagutzeko, ligatzeko, dantzatzeko. Baina gizartearen erdiak sarri neurriak hartu behar izaten ditu inongo gizonek festa izorratu ez diezaion. Eta badakigu zer diren Iruñeko Sanferminak. Nolako fama hartu duen azken urteetan Nafarroako hiri-buruak jaietan. “Legerik gabeko hiria”.

Urteak daramatzate, ez Iruñean bakarrik, mugimendu sozialek eta talde feministek eraso sexistak salatzen, eta Iruñean hasi dira gizarte mugimenduari eskutik helduta erakundeak ere lanean. Hasi da panorama aldatzen, “eraso sexistarik ez!” lelopean esku gorriak ezagun egin dira kale, taberna eta txosnetan, eta jada ez da horren erraza legerik gabeko hiria dela esatea. Egiteko lan handia badago ere, pauso bakoitza da garrantzitsua.

MEREZIMENDUZKOA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

‘Lasarte-Oria berreuskaldundu dezagun’ euskara elkartearen bueltan sortutako pailazo taldea da. “Poesia gutxi eta ekintza asko zegoen orduan, izenak berak ondo adierazten du” azaldu du Joxe Mari Agirretxe ‘Porrotx’ek. Euskalgintzaren bueltan 1987an martxan jarri zen talde honek 30 urte bete ditu pasa den abenduan, eta merezimenduzko saria jaso dute. “Oilo-ipurdia jarri zitzaigun sariaren berri izan genuenean. ARGIA euskaldunontzat erreferentzia da, eta gertuko sentitzen dugu. Herri-gintzan aritzen gara biok, eta euskara dugu baloreak transmititzeko tresna. Txikien arteko enpatia eta elkarlana ere esan nahi du guretzat sari honek”, adierazi du.

“Pailazogintza klasikoa jaio ginen, baina pixkanaka herrigintzari begira sortu dugu, gai sozialei begira. Abiadura azkarregian doan mundu honi kolore

Anton Mendizabal eskultoreak egindako ikurrak eskuan, sarituak. Goitik behera, ezker-eskuin: Jokin Aldazabal (Irratia), Aitzol Barandiaran (Ikus-entzunezkoa) eta Eñaut Barandiaran (Prensa idatzia); Gabi de la Maza (Internet), Vanesa Eguiluz (Sustapena), Zaloa Basabe (Sustapena), Uxue Alberdi (Ikus-entzunezkoa) eta Iñaki Berastegi (Prensa idatzia); eta Joxe Mari Agirretxe, Mertxe Rodriguez, Aiora Zulaika (Merezimenduzkoa) eta Aitor Manterola (Prensa idatzia). Atzeko panelean, saioa babestu duten erakundeak: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza, Emakunde, Laboral Kutxa, Nafarroako Gobernua, Kutxabank, Mondragon Korporazioa eta Euskaltel.

pixka bat eman eta baloreak mantentzea da gure helburua”, esan du Agirretxe. Eta ez ditu ahaztu nahi izan urte hauetan guztietan eurekin lanean aritutako kolaboratzaile, musikari, abeslari eta bidean izan dituzten lagun guztiak.

MEREZIMENDUZKOA

Bakearen Artisauak

Herri honen lorpen handi bat izan da 2017an, armagabetzea. Armagabetzea bi estatuek saboteaturik zuten arren, Bakearen Artisau bihurtu ziren herritarrek lortu zuten desobedientzia zibilaren bidez lehen armak deusezteak. ARGIA Sariatik komunikazio lana sartzien dugu, eta ez ote da komunikazioa izan, armagabetzearen ezinbesteko giltza? Bakearen Artisauak, Luhuson poliziak atxilotu aurretik, herritarrei komunikatu zieten zein zen bakearen alde burutzen ari ziren ekintza eta helburua. Herritarrek ongi ulertu zuten mezua, eta Frantziako hedabideek ere, gaiarekiko bestelako ikuspegiak zabaldu zituzten. Bakearen Artisauak erabateko zilegitasuna eta horrekin batera askatasuna lortu zuten komunikazio horri esker. Ondoren ere, ez ote zen giltzarria izan Frantziako familia politiko erabat ezberdinen artean komunikazioa diskrezioz eta konfiantzaz landu izana, Frantziako Estatuak jarrera aldatzea lortzeko? Alegia, Baiona ardatz hartuta herritarrek egun argiz eta modu publikoan desarmea burutu zutenean, estatuaren errepresiorik ez jasotzea lortzeko? ■

"Ez da berdin jakitea edo ez jakitea"

ARGIAko lantaldearen izenean, Estitxu Eizagirre, Urko Apaolaza eta Bego Zuzak hartu dute hitza. Hona diskurtsoaren pasarte batzuk (osoa, argia.eus-en).

Estitxu Eizagirre:

"Ez da berdin jakitea edo ez jakitea. Jakiteak beregan dauka aldaketarako aukera, edo alderantziz, gauzak bere horretan segi dezaten konplize bihurtzen gaitu. Baina jakitea edo ez jakitea ez da berdin. Informazioa da askatasunen oinarria. Usurbilgo poeta hark esaten zizun bezala, guk ere txoria, askatasuna dugu maite, baina ai, zenbat jende gabil-tzan hegoak ebakita! Generoa dela, jatorria, gorputzari zer bait falta omen zaio-lar, hipoteka, sexu joera, diglosia, adina... ARGIA-n, bereziki, gure gaurko munduko zapalkuntzak kontatzen saiatzen gara, zapalduen ondoan kokatuta. Juxtu zapal-du kontzienteengan dago askatasunaren hazia. Eta zapalduen artean ere, beti bada kontatzeko garaipen txiki-handirik. Eta beste era batera begiratuta, gaurko zapalkuntzak seinale handi batzuk ere badira, kapitalismoaren gakoak ari zaizkigulako seinalatzen; eta gaurko zapalkuntzak izan daitezke ere etorkizunaren ateak, zapalkuntza horietan ikusi dezakegulako zer oinarriren gainean eraiki dezakegun biharko herria".

Urko Apaolaza:

"Batzuen zapalkuntzaz ari garenean, denon zapalkuntzaz ari gara, eta denon eskubideez hitz egin nahi badugu... komeni zaigu ikusezinak diren horien eskubideen zapalkuntzan ere jartzea fokua. Horretan saiatu gara Zuloan liburuarekin. Abiadura Handiko Trena egiten dabil-tzan beharginen ondoan jarri eta haien egoeraz informatzen. Ez da samurra zuloan aurkitu dugun panorama,

eta guk zapalkuntza horiek ikusgarri egin nahi ditugu. Manu Robles-Arangiz fundazioak elkarlana proposatu zigunean ez genuen zalantzarik izan. Botere ekonomikotik ez daude ohituta euskarazko komunikabide xume bat izatea haien trapu-zikinak ateratzen dituenak. Ikasi dugu txikiak izanik ere eragin dezakegula; badago bai, zirrikiturik itxaropenerako".

Bego Zuza:

"Garaipen txiki-handiak kolektiboan lortzen dira, eta gaur hemen elkarrekin ospatu nahi ditugu 2017ak ekarri dizkigun beste garaipen txiki-handiak. Abenduan atera genuen Euskaraz Bizi Nahi Dugun Mapak erakusten du euskara ulertzen dutenen kopurua, herriz herri, guk uste duguna baino dezente handiagoa dela. Zorionak denoi, eta baliatu dezagun bakoitzak bere esparruan euskararen aldeko neurri ausartagoak hartzeko. Beste lorpen kolektibo bat da, erakunde publikoen eta hedabideen sektorearen arteko harremanak hobetu egin direla 2017an. Urte asko pasatu ditugu ARGIA Sari hauetan ere, instituzioei eskatuz euskarazko medioen aldeko apustua egiteko, hori dela herri hau euskalduntzeko bide eraginkorrenetakoa, diru-laguntzen formula agortuta zegoela eta beste bide batzuk esploratu behar zirela esanaz... eta pozik adierazten dugu, euskarazko hedabideen sektorea batzen duen Hekimenek, Jaurilaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, martxan jarri dutela 2018rako lanketa serioa, konfiantzazkoa, eta itxaropentsua". ■



1: Mixel Berhokoirigoin, saria eskertzen.

2: Urko Aristi, Javier Marcos, Leire Cancio, Paul Bilbao, Lorea Agirre, Odile Kruzeta eta Xabier Arregi.

3: Bego Zuza, Imanol Lazkano, Estitxu Eizagirre, Jokin Aldazabal eta Mikel Asurmendi.

4: Izaskun Landaida, Alberto Barandiaran eta Garbiñe Mendizabal.

5: Iñaki Sanz Azkue, Mikel Garcia, Kepa Matxain, Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Mikel Elortza.

6: Anton Mendizabal, sarien egilea.

7: Iñaki Uria, Martxelo Otamendi eta Xabier Arregi.
8: Urko Apaolaza, Joxe Mari Agirretxe eta Beñat Irasuegi.





AGIRREREN LEHENGUSU, NAZIEN ESPIOI



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Ribadeo (Lugo), 1902ko maiatzaren 12a. Juan Gomez de Lecube jaio zen. Beste iturri batzuek diote 1906an jaio zela Sestaon. Baina, jaioterria jaioterri, Euskal Herrian eman zuen haurtzaroa; Jose Antonio Agirre Lekube zuen lehengusu, gero lehendakari izango zena, eta, amarenaldetik umezurtza izanik, haren ondoan hazi zen. Anaia nagusia Luis Valentin ere ezaguna izango zen Hego Amerikan kontrabandista gisa; *Herrena* esaten zioten.

Juan ez zen herrena; futbolari profesionala izan zen, ezker hegalean jokatzaren zuen eta bere garaiko jokalaririk azkarrenetakoa izan zen kokapen horretan. Celta eta Atlético de Madrid taldeetan jokatu zuen, besteak beste, 1920ko hamarkadan. Futbola utzita, Kataluniara joan zen familiarekin eta Ogasunean hasi zen lanean; diru-sarrerak osatzeko, merkatu beltzean eta bitartekari gisa ere aritu zen.


Baina nazioarteko erakundearen interesa 1940ko hamarkadaren hasieran piztu zuen, alemaniarrentzat espioi lanak egiteagatik. Londresko artxibo nazionalako hari buruzko espedientea ikertu du *Sapiens* aldizkariak azken alean, Lecuberen nondik norakoak jasotzeko.

MI6aren txostenen arabera, naziek 1941eko urrian errekrutatuta eta 1942ko maiatza bitartean trebatu zuten. Ekai-



naren lehenean ontziratu zen Bartzelonan, Panamara bidean, baina hilaren 17an Trinidadan britainiarrek atxilotu zuten. Alemaniaren zenbait mezu atzeman zituzten bidean eta hilabeteak zeramatzaten Lecuberen atzetik. Alemaniaren zerbitzura Atlantikoa zeharkatu zuen agenterik garrantzitsuenetakoa eta arriskutsuenetakoa zen haientzat. Tinta ikusezina egiteko materiala eta Alemaniako inteligentzia zerbitzuko beste agente batzuen izenak eta helbidak zeramatzan atxilotu zutenean.

Churchillen kabineteke Barne ministro Herbert Morrisonen aginduz, Erresuma Batura eraman eta 020 esparruan sartu zuten 1942ko urriaren 4an. Britainiarren galdeketa gogorak alferrikakoak izan ziren. *Squealer* (salatari) izeneko plan berezi bat ere jarri zuten martxan, beste agente bat amu gisa erabiliz. Lecubek behin eta berriro askatze-



Juan Gomez de Lecube 1942an atxilotu zuteneko argazkiak. 1920ko hamarkadan futbol jokalaria izana, eta Bigarren Mundu Gerran alemaniarren agentea, Jose Antonio Agirre lehendakariaren lehengusua zen.

ERRESUMA BATUKO ARTXIBO NAZIONALA

ko eskatu zien Espainiako enbaxadoreari eta Ingalaterrako Barne ministroari, eta jasotako tratu kaskarra salatu zuen. Baina harengandik ez zuten batere informaziorik lortu. "Lecube gerra guztian izan dugun presorik zailena eta problematikoena izan da. Aitorpena lortzeko ahalegin guztietan porrot egin dugu", zioen 1945eko abuztuaren 10eko txosten batek. Gerra amaituta zegoen eta Espainiara deportatu zuten.

Entrenatzaile titulua aterata, Lleida nahiz Condal taldeak entrenatu zituen bere azken urteetan. 1966ko maiatzaren 2an hil zen Bartzelonan. ■



Rosie errematxatzailea hil da

1942an J. Howard Miller-ek, fabrikako langile baten argazkian oinarrituta, ezkerreko kartel ezaguna diseinatu zuen. AEBetako Gerra Batzordeak egin zion enkargua, emakumeek frontearen zeuden gizonak industrian ordezkatzeko. Gerra amaituta irudia ahaztu egin zen. Baina 80ko hamarkadan *Rosie errematxatzailea* -horrela esaten diote

karteleko pertsonaiari, *Rosie the Riveter*- indarberrituta eta feminismoaren ikono bihurtuta itzuli zen. Sei urteko ikerlanaren ondoren, 2016an, James J. Kimble-k Rosieren atzean zegoen benetako emakumea aurkitu zuen: Naomi Parker Fraley. 20 urte zituela hasi zen gerra industrian lanean, eta urtarilaren 23an hil zen, 96 urte zituela. ■



Baserriko Uzta

BELTXAREN BIKOTEA

Arbegain baserrian

(Etxarri Larraun)
otsailaren 3an

10:30ean

Izena emateko, idatzi:
baserrikouzta@gmail.com

Baserriari bisita + kontzertua + bazkaria

Izen ematea: 20€

6-12 urte: 12€

6 urte azpikoak dohain

Antolatzaileak:



zuzeu eluz



enbor

Irene Larraza

Etxepare Institutuko zuzendaria

“Munduko kultur institutu guztiekin parez parez aritu nahi dugu”

Etxepare Institutuko zuzendari berria da Irene Larraza tolosarra. Aurrez, sei urte eman ditu bertan, bestelako arduretan. Etxea ongi ezagutzen du. Miren Arzallusek duela urtebete hasitako bidea jarraitzea egokitu zaio, baina nahi luke, lan horretan, bere eskua eta egiteko moduak nabaritzea.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Lander Arretxea Berezartua

@larretxea

Itzalpean lan egitetik, periodikoetako titularretan agertzera. Aldaketa handia da?

Bai, arlo pertsonalean bada saltoa. Azken sei urteetan lan taldean izan naiz, eta oraingoa desberdina da, erantzukizuna hartzen duzulako eta behartzen zaituelako beste erakunde batzuekin erlazionatzera. Bost urtez aritu naiz komunikazio arduretan eta horrek hurbiltzen zaitu gai eta alor gehienetara. Erakundearen nondik norakoen berri badut, beraz. Azken urtean aldiz, kultur zuzendariaren postuan aritu naiz. Horretan egokitzen nabilela etorri da beste aukera hau, eta halaxe hartu dut.

Urtebete eskas egin du Miren Arzallusek karguan. Nabaritu da bere eskua institutuaren norabidean? Zuk berak hasitako bidea jarraituko duzu?

Berak ere lur hartzeko denbora behar izan zuen, normala den bezala. Horren ondoren, lau helburu oinarri zituen

plangintza proposatu zuen lau urterako: ikusgarritasuna hobetzea, beste erakundeekin koordinazioa, hazkunde kualitatiboa eta kultur diplomaziaren eremua lantzea. Denak ziren aurrez lantzen ziren eremuak, baina berak irakurketa berria eman zien. Hori da nik jaso dudana proiektua eta enkargua. Baina hori nola egin, horretan eragin ahal izango dut, eta nahi nuke nire ekarpena antzematea.

“Egileak aktiboa dira, instituzioa zubia” dio zuen webguneak. Hala da praktikan ere?

Beti dago zer hobetua. Lan-talde mugatua dugu, ez da oso handia, eta gure misioa, aldiz, amaiezina da. Beraz, nahi-taez ildo batzuk lehenetsi behar ditugu. Urgentzia askori erantzun behar izaten diogu maiz, eta hala denean, baliteke batzuetan harremanak gutxiago zaintzea. Hor, esan bezala, badago zer hobetua: gertutasunean. Gertutasun hori prakti-

kan jarri nahi nuke, izan dadila erraza gugana jotzea eta izan gaitezela gardena. Aurretik ere harremana izan dut sortzaile eta sektore askotako jendearekin, eta pentsatu nahi dut horrek ere lagunduko digula gertukoago izaten. Uste dut hor egin dezakedala nire ekarpena.

Tabakaleran egoitza izateak errazten du beste eragile edo sortzaile batzuekin elkarlana?

Gogoratzen dut Tabakaleran hasi ginean denok hartzen genuela ahotan “sinergiak sortu” espresioa. Nire buruari galdetzen nion ea hala izango zen, hitz asko oso erraz erabiltzen ditugu-eta. Baina egia da baietz, teilatupe berean egoteak harremanak asko errazten dituela.

Nagusiki kanpora begira egiten duzue lan, eta akaso horregatik, nolabaiteko desinformazioa badago Etxepare Institutuak egiten duen lanaz...



Gertatzen zaiguna da etxean Etxepare zer den azaltzeko ere denbora behar dugula. Ezin da hitz bitan esan. Azaldu behar duzu euskara eta euskal kultura kanpoan sustatzeko erakundea dela; irakaskuntzaren bidez euskara zabaltzen duela; kultura sustatzeko diru-laguntzak ematen dituela eta azokataria doala; ahotsa ematen diola gure kulturari Europa mailako beste erakunde batzuen aurrean... Hori dena entzunda, ez zara ezerekin geratzen, luzeegia delako, baina halaxe da. Hori dena egiten dugu, eta hori dena gara.

Globalizazio betean, gero eta gauza antzekoagoak egiten dira Mendebalde osoan. Nola ezaugarritu edo nabarmentzen da euskal kultura nazioartean, gehiegizko folklorismoan erori gabe?

Gakoa sortzaileengan dago. Bertako sortzaileek badute maila nahikoa mundura joateko konplexurik gabe, diziplina guztietan gainera. Zoritzarrez, mundu

globalizatua askoz gogorragoa eta hotzagoa da hizkuntza minorizatuentzat. Gure globalizazioa etxean bertan hasten da. Hizkuntza hegemoniko baten alboan bizi den hizkuntza batek badaki zer den hori urrutira joan gabe ere. Baina alde daukagu, euskarazko sorkuntzaz ari garenean, zerbait bitxia garelako, interesa pizten duena. Askok harritzen dira euskaraz goazelako eskolara edo epaitegira, euskaraz egiten ditugulako filmak, euskaraz idazten dugulako. Uste dut gaur egun garenaren eta sortzen dugunaren balio horri eutsi behar diogula kanpoan zer garen erakusteko. Tradizioari uko egin gabe, noski, hori ere bagara-eta.

Estatuturik ez izateak, zailtzen du, pentsatzen dut, nazioartean euskal kultura eta euskal sortzaileak kokatzeko ahalegina? Bai behintzat zuek jorratzen dituzuen bi-deetatik.

Mugatzen du, bai. Lana egin genuen

Europako kultura institutu nazionalak osatzen duten EUNIC sarean egoteko, eta lortu dugu bertan estatu bat ordezkatzeko ez duen lehenengo institutua izatea. Baina orain horren gidaritza daraman EUNIC global taldean sartu nahian gabiltza, eta estatuturik ez izateak zailtzen digu. Baina hori egon nahi dugu, Espainia edo Frantziako institutuekin, eta beste guztiekin ere bai, elkarlanean baina parez pare aritzeko.

Gero eta alor gehiago biltzen ditu kultura hitzak. Badu diziplina batzuekin harreman gehiago Etxeparek besteekin baino? Lehenesten dira batzuk?

Uste dut hasieran egitura tradizional xamarra zuela Etxepare Institutuak, baina aldatu da pixkanaka. Jakina, literaturak toki handia du, hizkuntzarekin oso lotura estua duen neurrian. Gainontzean, badira diziplina batzuk oso modu naturalean landu ditugunak: musika, arte eszenikoak, zinea, arte plastikoak... Eta

orain, azken urteetan, ari gara erreparatzen diseinuari, arkitekturari eta ondareari ere. Alor horiek gutxiago landu ditugu, eta uste dut badugula zor txiki bat.

Diru-laguntzekin zer eta nola laguntzen den, beti da gai arantzatsua. Zein da zuen helburua horretan?

Diru-laguntzak eta azokak, kasu gehienetan, sorkuntza profesional lanean ari direnentzat daude pentsatuta. Egia da badirela beste hainbat eragile eta sortzaile ez daudenak eremu profesionalan, baina ari direnak gauzak egiten eta kanpoan egon nahi dutenak. Horregatik, 2017an diru-laguntza bat berreskuratu genuen “kultura zabaltzeko deialdia” izenekoa. Helburua da formalki profesionalak ez diren sortzaileak laguntzea. Bestetik, hitzarmen, babes edo bestelako formulen bidez ere denetatik sustatzen dugu, baita profesionalak ez diren proiektu edo eragileak ere. Iaz, adibidez, 26 proiektu bultzatu genituen euskal eragileekin. Nahiko genuke, nola ez, diru gehiago izan gehiago banatu ahal izateko. Hori ere hala da.

Txanponaren beste aldea da askotan diru-laguntza, programa eta antzeko politikek zer eta nola sortzen den baldintzatzen dutela...

Guk ez ditugu produkzio laguntzak ematen, mugikortasunekoak baizik. Beraz, edukietan eta abar, ez dugu interferentzia handirik. Ez dugu produkzioa baldintzatzen. Irizpideetan, baloratzen da eskarmentua, aurkezten ari den lanaren oihartzuna... Euskarari ere toki handiago egin diogu. Lehen bost puntu ematen ziren euskaraz ziren lanak babes-teko, eta 2017tik aurrera aldiz hamar. Euskal kulturaren sustapenari egiten dion ekarpena eta Etxepareren helbuerkin bat egitea ere baloratzen dugu.

Kanonizazioa ere izan daiteke arrisku. Literaturara etorrira, izen gutxi dira nazioartean nolabaiteko sona dutenak: Atxaga, Uribe, Cano...

Egia da, aniztasuna egon dadin esfortzu handia egiten badugu ere, izen batzuk errepikatzen direla gure programetan. Baina bere azalpena badu. Batetik, badira autore batzuk berez badutenak nazioarteko dimentsio hori, eremu hori



» “Gaur egun sortzen dugunaren balioari eutsi behar diogu kanpoan zer garen erakusteko. Tradizioari uko egin gabe, noski”

» “Estaturik ez izateak zailtzen digu EUNIC global taldean sartzea Europako beste kultura institutu nazionalekin”

landu dutelako, eta dagoeneko itzuliak izan direnak hainbat hizkuntzatara. Guk ez ditugu sustatzen urrunago iritsi direlako, baina toki askotatik autore horiek eskatzen dituzte. Bestetik, batzuetan eskatzen dizkigute ingelesez edo frantsesez mahai-inguruetan hitz egiteko gai diren idazleak, eta autore guztiak ez dira horretara ausartzen. Hala ere, uste dut autore horiek bide bat irekitzen dietela atzetik datozenei, euskal literatura badela erakusten dute.

Zentzu horretan, genero oreka zaintzen saiatzen da Etxepare Institutua?

Saiatzen gara, badago borondatea. Proportzioetan, mugitzen ditugun emakumeak asko dira, nahiz eta kuota edo antzekorik ez dugun. Orain ari gara iazko lana aztertzen, eta diagnostikoa egiteko, genero adierazleak txertatu nahi ditut nik. Emaizten arabera ikusiko dugu zein neurri hartu behar ditugun.

Itzulpenak sustatzea da institutuaren lehentasunetako bat. Literaturari dagokionez, ez al da gutxi beste hizkuntzatara itzultzen dena?

Itzultzea baino, zaila dena editatzea da. Hainbat estrategia probatu ditugu hori laguntzeko, baina kanpoko editoreek, oro har, ez dituzte erakundeak nahi tartean; bertako erakundeekin erlazionatu nahi dute zuzenean. Orain arte landu diren bide batzuk ez dira akaso eraginkorrenak izan, eta bide berriak aztertu nahi ditugu. Gure lana, neurri handi batean, euskal idazleen lana ikusaraztea da, baina sektorearekin elkarlanean egin beharreko zerbait da.

35 “irakurle” eta zortzi katedra ere badira munduan zehar, euskal ikasketak eta euskal kultura zabalduz. Sortzen du interesik?

Interes hori landu egin behar da. Boise bezalako toki batean, adibidez, errazagoa da; beste batzuetan ez horrenbeste. Baina irakurletzak sortzeko dinamikak asko du proaktibotik. Kanpoko unibertsitate batean, arrotza den hizkuntza eta kultura batekiko interesa sortzen du. “Irakurle” esaten diogu bertan dagoenari, baina praktikan, irakasle lana egiten dute, eta ahalegintzen gara ikasgai hori curriculum akademikoan sartzen. Hasieran esandakoekin lotuz, uste dut lan horretan ari direnekin harreman estuagoa izatea badela erronka bat. Lan bakartia izan daiteke, mundua oso zabala da, eta guri dagokigu saretzeko lan hori goxotasunez eta gertutasunez egitea. Nobedade handi xamarra ere badugu aurtun: Euskal Etxeetan euskara irakasteko Euskara munduan programa HABEk kudeatu du orain arte, eta hemendik aurrera Etxeparetik kudeatuko dugu. Beste ildo bat da, kasu honetan, euskararen irakaskuntzarekin lotuagoa. ■



June Crespo

Eraitsi eta eraiki

BI IZATEA (2017)

Argizaria eta ehunak. 40 x 32 x 32 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Ez dira gauza bera deseraiki eta eraitsi, baina batzuetan deseraikitze modu bakarra eraistea izaten da, jaistera behartzea, lurrera botatzea, eta lurrera ekartzea, zeruetara igo beharrean. Horixe egin dute artista askok eskulturarekin, eta horretan ari da aspaldian June Crespo Oyaga (Iruñea, 1982ko urtarri-laren 21ean). Lurra da bere estetikaren oinarria.

“Ez dut hainbeste lan egiten gauzak lurzoruan landuz, baina denbora asko ematen dut gauzak mugitzen, ordenatzen, pilatzen... Ikuspuntu baxu batekin, objektuen parean. Dena dela, nire gauzak lurzoruan antolatzen ditut eta, azken

garai honetan, maila horizontalean edo ia bigarren lurzoruak diren planoetan. Gertuko artista askok antzera lan egiten dute edo aurkezten dute beren obra, baina beste leku batzuetan ere gertatzen da hori. Holandan, adibidez, horrela lan egiten duten lankideak izan ditut”. Holandako De Ateliers entzutetsuan egon da bi urtez, aurretik Suediako IASPISen. 2013an Gure Artea saria jaso zuen.

“Deleuzen arabera, horizontea, funtsean, ikusmenari dagokio eta lurzorua, funtsean ukimenari. Nire iritzian, beharbada, badu zerikusia Rosalind Kraussek ikuspuntu aberekoia bati buruz esaten duenarekin: lurzoruare-

kiko konexioak ikusmena eta ukimena lotzen ditu”.

Elkarrizketa batetik hartuak dira hitz hauek, Iñaki Imaz eta June Cresporen artekotik, *Eremuak #4* aldizkarian; dau den bezala jarri ditut. Galdera egiten dio Iñaki Imazek: “Gorputzaz ari garela, duela gutxi egindako argazki batean ikusi dut lan-jantzi urdina erabiltzen duzula, lantegi mekaniko askotan erabiltzen dituztenak bezalakoa. Asko zikintzen al zara estudioan?”.

Erantzunak ez du axola. Bere lanak ikustea da onena, Bilboko Carreras Mugican daude martxoaren 3ra arte, eta ukitu, begiekin bada ere. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gerraren kontaketa gazi-gozoa



Amaia Serrano Mariezkurrena

Errealitateak maiz fikzioa gainditzen duela esan ohi da. Eta halakoetan fikzio bidez errealitatea kontatu eta sinesgarri bihurtzea ez da lan erraza. Nobela honetan gerra garaiko istorio bitxi bat kontatzen zaigu, sinestezina irudi lezakeena, baina benetako gertaera bat oinarri duena. Valladolideko artzapezpikuaren bahiketa eta ihesa da, hain zuzen, kontagai. Alabaina, gertakizun hura fikzio bihurtzeko hautatu den tonuak egiten du liburua berezi: tragediaren eta komediaren arteko narrazio groteskoa dirudi. Komikotasunetik dramarainoko bidea egiten du, hasierako egoera irrigarriak desegin eta gerraren krudeltasuna agerian utziz.

Idatzi-moldearen umore kutsua hiru baliabideren bitartez lortzen da. Batetik, zenbait pertsonaiaren ibilbide ideologikoa karikatutzatuz. Bestetik, anarkismoaren mugimenduan dabilzan pertsonaia batzuen inkoherentziak nabarmenduz. Azkenik, gertaera batzuk muturrera eramanez. Horrez gain, pertsonaia historikoak narrazio komikoarekin nahasteak harridura, zirrarra, irribarrea nahiz larritasuna sor dezake irakurlearengan, batez ere egoerak absurdoraino iristen direnean.


Bestalde, testuinguru gatazkatsu horretan Karmen pertsonaia da nabarmentzen denetako bat, eta haren ibilerek bihurtzen dute 1936ko Gerrari buruzko eleberrigintzako emakumezko ekintzaile bakanetarikoa. Hura da, hain zuzen, istorioaren norabidea aldatzeko gaitasuna duena: alde batetik,

Gerezi denbora

INAZIO MUJIKA IRAOLA

Alberdania, 1999

Inazio Mujika Iraola idazle eta editorea (Donostia, 1963).



anarkista zoroaren amaiera eragiten duelako, eta bestetik, ezohiko emakume-irudia emanez, liderrari tiroa eman eta gudariak burutzera ausartu ez direna egiten baitu. Haatik, emakumezko pertsonaiaren irudikapenak erakusten du bulkadetatik eta sentimenduetatik egiten duela gerra, ezen arrazoi ideologikoa amodio-mendeku batetik abiatzen dela iradokitzen baita.

Eleberri honetan ipuingintzan trebatua den idazlearen eskua nabari da, irudien plastikotasunean, pertsonaien alderdi psikologikoaren sakontasunik ezean, ekintzen ugaritasunean eta kapitulu amaieretako intrigari. Irakurleari hari-mutur batzuk lotzeko eskatzen zaio, eta, trukean, bera konplize bihurtzeko asmoa dago nobelaren bukaeran, Donostiako alkate nazionalak artzapezpikuari eskaintako adierazpen publikoak istorioa irakurri duenak soilik ulertuko duen esanahia hartzen baitu, alkatearen ezjakintasuna agerian utziz. ■

» KONTZERTUA

Erritmoa eta emozioa



Montserrat Auzmendi del Solar

Orokorrean, atentzio handiena deitzen didana opera batean alderdi musikala da, dudarik gabe. Baina ez zaigu ahaztu behar (ez zait ahaztu behar, hobeto esanda), opera “espektakulu osoa” kontsideratzen dela, hau da, antzerkia, musika, fantasia... Honekin guztiarekin koktelera batetik ateratako ikuskizuna dela opera. Horrexegatik, abeslari onak aurkitzen ditugunean, orkestra doi batekin, zuzendari adimentsu baten zuzendaritzapean, eta horrez gain eszena zuzendaritza aparta disfrutatzen dugunean, orduan beste dimentsio batean aurkitzen gara.

Hauxe izan zen aldi honetan topatu genuena Euskalduna Jauregian. OLBEn denboraldi honetako hirugarren titulua dugu Masseneten *Manon* opera, eta benetako gutizia suertatu zen. Arrazoi garrantzitsuena: Arnaud Bernard eszena zuzendariak eta Alessandro Camera eszenografoak emandako ikuspegi arina baina ez azalekoa, abeslariak ezin hobeki zuzenduz eta eszenatokiko baliabide sinple eta aldi berean originalak erabiliz. Batzuetan musikak eta letrak adierazi nahi duten sakontasun eta emozioa ez dira behar bezala iristen ikus-baliabide egokiak erabiltzen ez badira. *Manon* honetan sentitu genuen pertsonaien bakardadea jendearen artean, protagonisten kontraesanak, bakoitzaren ilusioak eta desilusioak, pentsamenduak... Eta ez musikaren bidez bakarrik, baizik eta eszenatokian azaltzen ziren gune

Jules Masseneten 'Manon' opera

VERUM ORKESTRA
SINFONIKOA

Zuzendaria: Alain Guingal.

Bilboko Operaren

Abesbatzaren zuzendaria:

Boris Dujin.

Eszena zuzendaria:

Arnaud Bernard.

Eszenografia:

Alessandro Camera.

Koreografia: Gianni Santucci.

Bakarlariak: Irina Lungu,

Michael Fabiano, Manel Esteve,

Roberto Tagliavini, Francisco

Vas eta Fernando Latorre.

Euskalduna Jauregia.

Urtarrilaren 20a.



isolatuen bidez ere bai, eta batez ere pertsonaien interpretazio nolabait espresionistei esker.

Halere, kontuz!, ez dezagun pentsatu alderdi musikala makala izan zela, ezta pentsatu ere. Bakarlari guztiak primeran aritu ziren, eta baten batek txunditu egin zituen entzu-leak. Michael Fabiano tenore estatubatuarrak Chevalier des Grieux zoragarria egin zuen. Ahots garbia azaldu zuen, ausardiaz abestu zuen uneoro, bere onena emanez, eta pasarte hunkigarriak oparitu zituen *Je suis seul* edo *Ah, fuyez douce image* arietan bezala.

Irina Lungu soprano moldaviarrak ere *Manon* ederra eskaini zuen, samurra, zalantzak zituena. Aria distiratsuak abestu zituen. *Adieu, notre petite table* edo bigarren ekitaldian Des Grieux-ekin egindako duoa azpimarratuko nituzke. Aktuazio ona egin zuen baita ere Roberto Tagliavini baxuak, taxuzko Comte des

Grieux eginez.

Verum Orkestra Sinfonikoari buruz, eta batez ere Alain Guingal zuzendariari buruz gauza onak besterik ezin dira esan. Ederki azpimarratu zituzten ahotsak, dotoreki, bolumen justuak eginez. Eta Bilboko Operaren Abesbatza, Boris Dujin-en zuzendaritzapean, ongi aritu zen, doitasunez. Txalokada izugarriak jaso zituzten. Merezita. ■

OLBEk antolatutako Jules Masseneten
“Manon” operaren pasarte.

Azken alabaren azken ekarpena

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKOA

Oionen, urtarrilaren 27an, Azkenak elkartean. Legutioko Tribitu taldea eta Arabar Errioxako Txandrio lehiatu ziren. Txandrio sailkatu zen finalaurrekoetarako.



Edurne Azkarate

ARGAZKIA: IBAI ROITEGI

Urtarrilak 27 zituela iritsi zen Bertso Eguna, Oionera hain zuzen ere. Azkenak elkarteari kea zerion hirurogeita hamar entzule eta parte-hartzaileon masail gorriak zirela medio. Arabako Errioxako Txandrio eta Legutioko Tribitu bertso eskolak lehiatu ziren bertan, bai, baina hasi gaitezen hasieratik.

Euskal Herriko toki honetan zerbait ospatzen dugun aldiro bezala, egun osoko plana egin genuen, izan ere, bertso saio bakoitza jaialdi bihurtu ohi zaigu. Tabernetan zehar eta Irule elkarteko trikitilariak lagunduta egin genuen beroketa bazkaltzera joan aurretik. Ostean, Oihane Pereak entrenatzen duen San Bizente ikastolako San-Bi taldeak, bertso paperekin deskortxatu zuen bertso saioa, *Aldapan Gora* abestiaren "Wifirik gabe" bertsoiarekin. Bertsolariei bidea majo leundu zieten, Azkenaken dezibeli dantzaldia abian zen.

Saio puntuagarriari taldekako agurrarekin ekin zioten etxekoek, *Hotel California* "Ongi Etorri Errioxara" bilakatu, horrezkero entzuleen artean bazen



Arabar Errioxako Txandrio taldea akzioan: Orlando Arreitunandia, Iker Olabarrieta eta Unai Bengoetxea.

emozioz malkoak isuri zituenik. Araban jada klasikoa den agur probokatzaile eta originala egin zuen Tribituk, horrelakoak gara, eta gustatzen zaigu. Gauza garrantzitsuez hitz egin behar denean bezala, mahai baten bueltan jarraitu zuen saioak, lehenengo iladan pozez eta adi San-Bi taldekoak zeudela. Etxetik Orlando Arreitunandia, Iker Olabarrieta eta Unai Bengoetxea eta Zuiatik Maria Fuentes Iñaki Lertxundi eta Josu Ormaetxea zortziko handian, txikian, lau oinak emanda, bukaera emanda, puntuari erantzuten, kartzelako lanetan eta kopletan kantari jardun zuten. Bakanala. Bertsolariak bakarka ondo aritu baziren ere, taldekako lanetan kuadrilartekoaren mamia nabarmendu zen, beraz, agurrak elkarrekin abestu zituzten *Aita Semeak eta Ama Alabak* doinuak.

Saioa amaitu eta epaileek emaitza eman zuten. Txandrio garaile! Egia esan, txandrio asko egin gabe ari dira errioxarrak aurtengo txapelketan... Ez dakizuenentzat, gure eskualdean asko

erabiltzen den hitza da txandrio; etimologikoki "etxe" hitzetik omen dator eta gaiztakeriarik gabe bihurrikeria bat egitea esan nahi du, zerbait hankaz gora jartzea, nahaste-borraste bat egitea.

Gure ekosistemak nahiko txandriotuta bukatu zuen, hasieratik zegoen bezala, alegia. Izan ere, gure nortasun anitzaren islada izan zen entzulegoa, eskualdetik ez ezik Andoaindik, Eibartik eta Italiatik ere (bai, bai, Italiatik) etorri zitzaizkigun, baita bertsolaritzaren Meka bihurtu den Hernanitik ere, alabaina, beti dago elkarrengandik zer ikasi. Dirudienez larunbatean ertzak periferian batu ginen eta bertan 2018. urteko Bertso Eguna historiko bilakatu zaigu. Arabako Errioxak egokitutako taldeko saioak lehenbizikoz irabazi ondoren Arabako Kuadrilen Arteko Txapelketako finalerdietara sailkatu da!

Maitasunez egiten dugun lanaren oihartzuna geratu zen Azkenaken eta hau da azken alabak egindako azken ekarpena.

Zuek zer moduz Mungian? ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Ireneo Ajuriak 1987an Bilbon botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Aita izena kanta beharrak*. Gaia: Lehenengoz eskolara eroan eta bertan negarrez hasten jatzun semeari.

Ene semetxo lau _____
apur apurka heldu zara
eskolaurrean negarrez zaude
ez zazu hartu _____.
Maisuak eta zure adineko,
aita, _____ hemen gara
ta ikasketak _____ dizu
gizon helduen patxada
isildu eta beldurrik gabe
_____ zaite ikastolara. (bitan)

Lehenengo egunez etorri zara
zuretzat ez da _____
beste batzuk be egiten dute
zuk _____ duzun berdin.
Baina bidea horixe duzu
seme behar dezu _____
jolastu zazu etxe honetan,
liburuakin _____ fin,
laister gizona e'ingo zaitue
eta _____ ez egin. (bitan)

Pentsa egizu nolakoa den
maitasunaren _____
iduritzen zaizu mundua gaur
duna eta bakarra.
baina _____ ikastolara
zure biharko _____
nahiz ta penetan aurkitzen _____
duzu _____ beharra
nik etxeruntza eramango det
semetxo _____ negarra. (bitan)



A	R	A	T	E	T	R	U	U	T	I	D	L	E	G
S	A	R	T	U	Z	E	J	N	B	K	E	T	S	P
L	B	J	I	S	G	R	V	O	F	A	E	P	D	V
S	E	H	P	A	S	U	J	I	G	R	B	D	B	N
E	N	R	B	E	C	Z	Z	P	L	A	F	F	E	D
E	V	T	O	I	Z	A	N	B	E	E	Z	R	S	C
E	I	G	T	A	R	C	E	O	L	G	A	A	F	T
L	A	B	L	R	D	P	G	I	A	Z	A	U	T	I
P	R	G	A	G	J	A	E	F	E	B	A	T	A	
E	R	R	V	M	R	P	R	C	E	D	B	T	Z	P
E	A	O	J	D	A	V	R	G	V	D	M	S	B	T
A	D	G	C	L	V	I	I	H	I	H	F	E	C	P
P	N	N	F	J	H	T	K	O	M	I	D	G	J	O
D	I	A	Z	J	E	D	J	J	E	C	C	I	D	O
J	C	M	M	N	B	E	G	I	R	A	P	N	H	G
I	J	E	N	I	K	A	J	F	I	O	E	M	Z	T

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Ezker-eskuin:

1. Piztu aditzaren erroa. Zuhaitzen enbor, adar eta sustraiak osatzen dituen gaia. 2. Preso hartu. 3. Lama. Hertsia. 4. Hegazti harrapari. Rubidioaren sinboloa. 5. Letra izena. Luzetara. 6. Hazama, unide. Zendu. 7. Iskanbila, istilua. 8. Atsedan-garai, lanuzte. Burdinolak.



Goitik behera:

1. Gertaera. 2. Nafarroako udalerria (argazkian). 3. Gaizto, oker. Sasoirra heldu. 4. Herri hizkeran, zer. Puxtarri. 5. Antzinako dantza, hiru aldikoa, frantses jatorrikoa. 6. Erdu, etor zaitez. Modu atzizkia. 7. San Martin ..., Nafarroako udalerria. Eskumen, botere. 8. Nahi bizia. 9. Danbor zapalak.

Sudokuak

Erraza

		7	1		6			8
		8		3		5		
				4	8		7	3
5	1	6	8					
2	8		3		5		6	9
					2	8	5	4
1	4		7	8				
		5		6		4		
7			4		9	3		

Zaila

			2	7		8		4
	9	2		5				7
							3	
	1		7		4			
		4		2		3		
			8		1		2	
	2							
9				1		5	6	
5		6		8	2			

Ebazpenak

Ene semetxo lau **urrietara**/apur apurka heldu zara/eskolaurrean negarrez zaude/ez zazu hartu **ikara**/Maisuak eta zure adineko, aita, ama hemen gara/ta ikasketak **enango** dizu/gizon helduen patxada/isildu eta beldurrik gabe/**sartu** zaite ikastolara/Lehenengo egunez etorri zara/zuretzat ez da **ategin**/hesie batzuk be egiten dute/**auk egiten** duzun berdin./Baina bidea horixe duzu/seme behar dezu/**jakin**/jolastu zazu etxe honetan./liburuakin **izan** fin./laister gizona e'ingo zaitue/eta **negarrik** ez egin./Pentsa egizu nolakoa den/maitasunaren **indarra**/iduritzen zaizu mundua gaur/duna eta bakarra./baina **egin** ikastolara/zure biharko **izarra**/nahiz ta penetan aurkitzen **zaren**/duzu **gelditu** beharra/nik etxeruntza eramango det/semetxo **zure** negarra.


1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

Éric Toussaint. Zorrek astinduz



Nafarroako Legebiltzarrean egon da Parlamentu Sozialak ekarrita, eta aholkatu dio Nafarroako Gobernuari ez dezala zor ilegítimoa ordaindu. Greziakoari ere hori aholkatu zion lehenago, eta Ekuadorrekoari eta beste hainbati. Zorraren gaiaren mundu mailako aditu garrantzitsuenetakoa da aktibista belgiarra. Liburu ugari idatzi ditu gaiaz.

“Euroeremutik ateratzea ez dut baztertzen, egoera kontrolagarria da”



Xabier Letona
@xletona

Gobernuen aholkulari

“Belgikan jaio nintzen 1954an, Namurren. Zorraren gaia izan da nire bizia: garai batean Hegoko herrien zorra ikertu nuen asko, azken boladan herrialde aberatsetakoa gehiago. 15 liburitik gora egin ditut gaiaz eta mundu mailako erakundea den Zor Ilegitimoa Ez Ordaintzeko Batzordearen bozemailea naiz, besteak beste. Nafarroan gogor ari dira lanean zor publikoarekin eta laguntzera etorri naiz. Bihar banoa Parisera eta etzi Italiara. Asko bidaiatzen dut”.

Samurra al da zor ilegítimoa identifikatzea?

Oso samurra. Zor hori kontratatu da gutxiengo pribilegiatu baten interesak asetzeko: bankuen erreskatera bideratutako zorra, aberatsei egindako opari fiskalak, ‘elefante zuriak’ eraikuntza enpresentzat, ustelkeria bidez kontratatutako enpresak...

Etengabe esaten zaigu krisitik ateratzen ari garela edo atera garela. Hala da?

Ez, jakina. Europako Banku Zentrala (EBZ) 2 bilioi euro ari da sartzen banku pribatuetan eta, aldi berean, 1,5 bilioi euro gastatu ditu titulu subiranoak erosten; horrek interes tasak jaisten ditu estatuentzat. Emaitza? Badirudi krisitik ateratzen ari garela, baina hori ez dago oinarrituta ekonomiaren egiazko hobekuntzan.

Zor publikoari aurre egin nahi dioten gobernuak aholkatzen diezun lehen puntua da Europako Batasunaren irizpideak desobeditzea. Horrek esan nahi du EBtik ateratzea edo EBk kanporatzea.

Desobeditzeak ez du esan nahi bereha-

lako kanporatzea. Espainia moduko estatut batean, adibidez, negozioak ahalmen garrantzitsua luke... zeresanik ez Frantziak edo Italiak. Horrez gain, ez dut baztertzen euroeremutik ateratzea, eztabaidatu behar da horri buruz, ez du hondamendia esan nahi, egoera kontrolagarria da.

Edozein modutan, dagoeneko ez da hainbeste entzuten zor publikoarena, are gutxiago ez ordaintzearena.

Bai, egia da. Interes apalak medio, gobernuak lortzen dute beren zorra finantzatzea arazorik gabe, baina egoera aldatu egingo da, EBZk zor publikoaren erosketak gutxituko duelako eta interes tasa igoko duelako. Horrek estatuenganako presioa handituko du eta iritziz publikoaren arreta piztuko du berriz ere. Horregatik ari gara lanean gogor orain, egoera hori aurreikusten dugulako.

Estatuen zor publikoaren egoera zein da?

Oro har, etengabe gora doa. Zergetatik biltzen dena gutxitzen bada, nonbaiten bilatu behar da finantzazioa.



"Gobernuek orain lortzen dute beren zorra finantzatzea arazorik gabe, baina egoera aldatu egingo da, EBZk zor publikoaren erosketa gutxituko duelako eta interes tasa igoko duelako".

2008an Greziaren zor publikoa bere BPGaren %100a zen, gaur egun %175. Erreskateak tranpa bat dira?

Jakina. Funtsean, Grezia erreskatatzeko plana, EBko ekonomia indartsuenetako bankuak erreskatatzeko plana zelako. Euroaren lehen hamar urteetan diru fluxu handia egon zen herrialde aberatsetatik periferiakoetara eta gero hori itzuli behar izan da.

Alexis Tsiprasek –Syrizak– EBrekin negoziatu zuen, nahiz eta zorra ez ordaintzeko erreferenduma %61,5arekin irabazi zuen. Zer gertatu zen?

Tsiprasek ez zien aurre egin hartzeko-dunei ezta bere herrialdeko klase nagusiei ere, beraz, traizio egin zion bere herriari. Tsiprasek erabakia zuen itsas industriako jabeei eta eliza ortodoxoari ez aurre egitea.

Syrizak dio bestela EBtik kanporatuko zutela. Grezia prestatuta zegoen horretarako?

Hori prestatzea zen bere lana. Zure herriari eraso egiten badiote, zuk ezin duzu hori defentsarik gabe utzi. Hala ere, gaia ez zen EBtik ateratzea ala ez,

zorra ordaintzea ala ez baino. Tsiprasek zor ilegítimo ordaintzea erabaki zuen.

Zuk esan duzu Tsiprasek erreferenduma deitu zuela pentsatuz galdu egingo zuela. Zergatik uste duzu hori?

Hainbat zantzu ditudalako. Tsiprasen aholkulari batekin oso kontaktu estua nuen eta hark kanpainan bidaltzen zizkidan mezuak esanez galdu egin behar zutela. Nik esaten nien oso kanpaina txarra egiten ari zirela, egiazki mobilizatu gabe, baina hala ere jendeak ezezkoa bozkatuko zuela. Beste zantzu bat: nik oso estuan egiten nuen lan Greziako Legebiltzarreko lehendakariarekin, eta erreferendumaren gauean, jakinik jada irabazi zutela, bera joan zen lehen ministroaren bulego-
ra eta, Tsipras eta bere aholkularia erabat triste zeuden. Hurrengo egunean bildu ziren zorra ordaintzearen aldekoekin, berau nola ordaindu adosteko. Tsiprasek dena zuen prest galtzeko eta oposizioarekin eta EBrekin negoziatzeko, eta bere gidoiarekin jarraitu zuen.

Alderdi eraldatzaileek sarri ematen dute amore instituzioetara heltzean. Zergatik?

Ez direlako aldaketarako prestatzen. Gatazkan eta desobedientzian sartu behar dira eta hori egin beharrean, beren burua sare instituzionalean harrapatzen uzten dute. Podemosekin gertatzen ari da Espainian, baina nolabait Bildurekin ere gertatu zen Gipuzkoan. Autonomia fiskala izanda, esaterako, esparru fiskalean neurri zorrotzagoak hartu behar zituen. CUPi ere antzekoa gertatu zaio: honen oso zalea naiz, baina larrutik ordaindu du beste bi alderdi independentista neoliberalekin egindako ituna. Ez naiz ni bakarrik hau dioena, alderdi horietako militante askok berdin pentsatzen dute eta eztabaidatu behar da horretaz.

Zer egin behar da hori gerta ez dadin?

Bat, ondo prestatu, jakin estatuetako gobernuai aurre egin behar zaiela, eta bertako klase nagusiei ere bai. Bi, giltzarri da alderdietako koadro guztiak instituzioetan ez sartzea, eta alderdiko koadro horiek eta militanteak kalean mobilizatzea gobernuari presio egiteko. Instituzio eraldatzaileen eta herritarren mobilizazioen arteko elkarlan estua ezinbestekoa da. ■



Euskaltzaindiak 100 urte: “Sagarra mantzana, ikatza carbón, mujer andrea eta hombre gizon”

100 urte beteko ditu 2018an Euskaltzaindiak eta zalantzak argitzen txapel-dunak direla erakusteko, *Entzun Gaitzatele!* kanpaina abiatuko du. Guraso askori loa galarazten dion kezkarik helduko diote: hanka-tartean zintzilarioa ala zulotxo, zer egin haurraren izenarekin?. “Nor hobeto umeen zeraz hitz

egiteko apaizok baino”, adierazi du akademiako eledun Miguel Gorotzategik. “Gizarte libre bat nahi dugu, gizon eta emakume librez osatua, eta horregatik Euskaltzaindiak libreki aukeratuko ditu zure umearen izena eta izana”. Autobusa larunbatean abiatuko da Arantzazuko parkinetik, Munillak kanpaia jo ostean.

SAREAN ARRANTZATUA

**Familia normal bat,
gauza normalak egiten,
zu lanean zauden
bitartean**



**Bizitza aspergarria
dutenentzako jolasa**



Gure Esku Dagok 200 kilometroko soka-saltoa antolatu du erabakitzeke eskubidearen alde

Zenbait komunikabidek iragarritakoaren kontrara, ekainaren 10ean Gure Esku Dago ekimenak ez du giza-kate berri bat antolatuko. “2014an egin genuen eta gauza bera errepikatzea litzateke”, azaldu du Baratzte Nikanor bozeramaileak. “Ideia askoz originalagoa izan dugu: soka-salto erraldoia egingo dugu, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen, erabakitzeke eskubidearen alde egin nahi dugun jauzia irudikatuz”. Dagoeneko kontaktuan jarri dira hornitzaileekin hain soka luzea lortu ahal izateko. “Behin ekimena bukatuta, Gure Esku Dago finantzatzeko baliatuko dugu, bere burua urkatu nahi duen jendeari metroka salduta”, Nikanorren esanetan.

Anjel Oiarbide ekainaren 10eko ekimenerako entrenatzen.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com